

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2020ko 3. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA**
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA**
Dirección de Economía y Planificación

EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA	3
EKONOMIAREN INGURUNEA	5
EAE-KO EKONOMIA.....	9
Ekoizpena eta enplegua	9
Barne eta kanpo eskaria	13
Prezioak, soldatak eta kostuak.....	21
Arlo publikoa	25
Arlo finantzarioa	27
Aurreikuspenak.....	32

Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I).....	5
Munduko ekonomia. BPGa (II)	7
Enpleguaren bilakaera.....	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera.....	31
2020ko eta 2021eko aurreikuspenak (I)	37
2020ko eta 2021eko aurreikuspenak (II).....	38

Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak.....	9
Jarduera adierazleak	10
Eskariaren aldagaiak	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak	15
Esportazioen helmuga	17

Inportazioen jatorria	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa.....	21
EAE-ko kontsumoko prezioen indizea	22
Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak.....	23
Lan kostuak	24
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-urria)	26
Adierazle monetario eta finantzarioak (I)	27
Adierazle monetario eta finantzarioak (II).....	29
Ekonomia aurreikuspenak	33
Espainiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2020ko azaroa).....	35
Eae-ko ekonomiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2020ko abendua)	36

LABURPENA

Udaberriaren amaieran eta udan abian jarri zen deseskalatzeari esker, jarduerara itzuli ahal izan zen eta BPGaren bilakaera ez zen bigarren hiruhilekoko bezain negatiboa izan. Zehazki, bigarren hiruhilekoan urte arteko aldakuntza tasak inoizko beherakada handiena (-%19,5) jasotzetik hirugarrenean oraindik ere %7,5eko jaitsiera adierazgarria izatera igaro zen. Hobekuntza Europako ekonomia nagusietan izandakoaren antzekoa da, potentzia batzuk egoera hobean baitaude (Alemania -%4,0 eta Frantzia -%3,9) eta beste batzuk, berriz, okerragoan (Erresuma Batua -%9,6 eta Espainia -%9,0). Oraingo zalantza da kutsatzeen bigarren olatuaren hedapenak, EAEn eta Espainian lehenago hasi baitzen, susperraldia geldiaraziko duen ala ez.

Eskariaren ikuspegitik, hirugarren hiruhilekoko hobekuntza erlatiboa barne eskariaren bi osagaietara hedatu da, eta urte arteko beherakada hamar puntu inguru gutxitu baitute. Alde batetik, azken kontsumoko gastua %5,9 murriztu zen eta kapitalaren eraketa gordina %11,4 jaitsi zen 2019ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Bestalde, mugikortasunari mugak jarri izanak eta eskaria murriztu izanak eragotzi egin zuten kanpo merkataritzaren garapen normala, eta horren ondorioz bai esportazioak bai inportazioak beheratu ziren.

Aurtengo lehen hiru hiruhilekoetan zehar, portaera ezberdina ikusten da kontsumoaren bi osagaietan. Alde batetik, familien kontsumoak ondoz ondoko hiru datu negatibo erregistratu ditu, intentsitate bereziko bigarren hiruhilekoan eta moteltze nabarmena hirugarrenean (-%8,5). Pandemia kontrolatzeko hartu diren mugikortasun murrizketei zuhurtziazko aurrezkiek gehitu behar zaie erosketen beherakada azaltzeko. Bestalde, administrazio publikoen kontsumoak hedakorra izaten jarraitu zuen, hain zuzen ere, sektore publikoak birusaren hedapena geldiarazteko egindako ahaleginaren ondorioz.

Kapitalaren eraketa gordinaren bi osagaiak antzeko jaitsierak izan zituzten hirugarren hiruhilekoan. Hala, ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioa, neurri handiagoan suspertzen ari ziren inportazioen mende baitago, %12,2 murriztu zen, bigarren hiruhilekoko tasatik (-%30,1) urrun. Gainerako inbertsioak, berriz, zeinean eraikuntzan egindako inbertsioak garrantzi handia baitu, %10,9ko beherakada izan zuen, aurreko -%18,8aren ondoren.

Bai jardueren itxierak bai ondorengo deseskalatzeak eragin handia izan zuten ekoizpen sektore pribatu guztien bilakaeran. Bigarren hiruhilekoan intzidentzia apur bat handiagoa izan zen industrian, baina irekierak mesede handiagoa egin dio, eta aurreko hiruhilekoan jaitsi ziren ia 27 puntuetatik 17 berreskuratu zituen, -%9,5eko tasa bat jaso arte. Tasa hori eraikuntzak hirugarren hiruhilekoan erregistratu zuenaren antzekoa da (-%9,3), nahiz eta sektore horrek, kanpokoaren

mende ez dagoen obra publikoko osagai bat izanik, gutxiago egin zuen behera bigarren hiruhilekoan.

Zerbitzuei dagokienez, sektore publikoak beraietan parte hartze handia duen zerbitzuak eta ekimen pribatukoak bereizi behar dira. Lehenengoetan, balio erantsiak ez du behera egin aurtengo hiruhileko bakar batean ere, eta hirugarren hiruhilekoan %1,1 egin du gora urte arteko tasan. Bestalde, bai merkataritzaren, ostalaritzaren eta garraioaren blokean, bai gainerako zerbitzuen blokean, bigarren hiruhilekoan %20,0tik gorako beherakadak izatetik hirugarrenean urte arteko aldakuntzak erdira baino txikiagoak izatera igaro ziren. Zehazkiago adierazita, lehen taldeak -%10,2 jaso zuen eta bigarrenak -%8,1.

Lan merkatuan ere nabaritu zen deseskalatzearen eragina, hirugarren hiruhilekoko zifrak bigarren hiruhilekokoak bezain negatiboak izan ez zirelako. Izan ere, lanaldi osoko lanpostu baliokideak %17,2 jaitsi ziren bigarren hiruhilekoan urte arteko tasan, baina jaitsiera %6,2 baino ez zen izan hirugarrenean. Komeni da gogoraraztea lan merkatuko beste estatistika batzuek lanean ari diren langiletzat jotzen dituztela aldi baterako enplegu erregulazioko egoeran dauden pertsonak, eta, ondorioz, haien aldakuntza tasak txikiagoak direla. Hala, BJAk %4,4ko beherakada izan zuen okupazioan eta Gizarte Segurantzako afiliazioak %2,1eko murrizketa izan zuen.

Jarduera ekonomikoaren gelditasunak prezioen jaitsiera dakar berekin, eta adierazle nagusiak tasa negatibotan mantentzen dira. Alde batetik, BPGaren deflatorea -%0,3 izan zen hirugarren hiruhilekoan, bigarren hiruhilekoko -%0,5aren ondoren. Bestetik, KPIa -%0,4koan kokatu zen hiruhilekoaren batez bestekoan, eta zifra negatiboetan dago apiriletik. Horrek pentsarazten du emaitza negatiboa izan daitekeela urteko batez bestekoan.


Hirugarren hiruhilekoan ekonomia suspertzen ari dela ematen duen arren, zalantzak daude laugarren hiruhilekoaren emaitzaren inguruan, Europan zabaldu den bigarren kutsatze boladak baldintzatuta. Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenen eguneratzeak adierazten du 2019ko balioetara itzultzeko prozesu horretan unean uneko balazta bat dagoela. Izan ere, BPGa %7,3 jaitsiko da urtearen amaierako tartean, eta ez du ia hobekuntzarik izango hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Horrenbestez, urteko batez besteko tasa -%9,4 izango da, eszenategi makroekonomiko berriaren arabera. Emaitza horrek zazpi hamarren hobetu du aurreko aurreikuspena, espero zena baino hirugarren hiruhileko hobea erregistratu baita. Bestalde, 2021erako errebotea txikiagoa izango da, eta hazkunde tasa %8,6an geratuko da, hau da, aurreko aurreikuspenekoa baino hiru hamarren beherago. Enpleguari dagokionez, langabezia tasan ez dela aldaketa handirik izango kalkulatzeko da: 2020ko batez bestekoa %10,3 izango da, eta datorren urtean %9,8ra jaitsiko da, 2019an erregistratu zen tasa bera baita.

EKONOMIAREN INGURUNEA


Udako hilabeteetan, munduko ekonomiak indar handiz egin zuen gora, mugaketen eta mugikortasun geografikoaren lasaitzeak bultzatuta, eta horri esker, jarduera ekonomikoa suspertu egin zen, eta, ondorioz, ekonomia handi guztiek atzean utzi zituzten aurtengo bigarren laurdenean jaso zituzten inoizko tasarik apalenak. Hasiara batean, adierazle guztiek seinalatzen zuten 2020ko bigarren hiruhilekoa izango zela pandemiaren inflexio puntua, baina COVID-19aren bigarren olatuak uztailearen hasieran eragindako kutsatzeen berpizkundeak, zeina ez baita gelditu eta urrian eta azaroan Europa osoan zehar kontrolik gabe hedatu baita, osasun publikoari erronkak planteatu dizkio berriro, bai eta hazkunde ekonomikoaren epe laburreko aurreikuspenei buruzko zalantzak ere.

Munduko ekonomia. BPGa (I) Urte arteko hazkunde tasak

ELGE



Txina



Iturria: ELGE.

Txinak pandemiari iskin egin zion berriro eta %4,9 hazi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan. Horrela, bi hiruhilekotan jarraian gora egin zuen, apirila eta ekaina bitartean %3,2ko urte arteko hedapenaren ondoren. Hain zuzen ere, lehen sektorea %3,9 hazi zen, industria %5,8ra bizkortu zen eta zerbitzuen sektorea %4,3ko erritmoan hazi zen. Zehazkiago adierazita, txikizkako salmentak eta industriaren ekoizpena urte hasieratik izan duten mailarik altuenetan kokatu ziren, pandemian zehar atzeratutako gastuak gauzatzearen ondorioz, eta esportazioek oso ahulak izaten jarraitu zuten, Txinaren merkataritza bazkide nagusia den Europa pandemia betean murgilduta jarraitzen duelako, baina hirugarren hiruhilekoan %8,8 hazi ziren. Osasun krisiarekin lotura duten

eta hortik eratorri diren produktuen salmentak (osasun babeseko ekipamenduak, ondasun elektronikoak, etab.) azaltzen du igoera garrantzitsu hori.

Horrek guztiak erakusten du Txinako ekonomia susperraldi etengabea murgilduta dagoela, barruko eta atzerriko merkatuen eskari sendoari esker. Orobat, badirudi amaitutzat eman duela pandemiaren ondoriozko krisia, gainerako ekonomiek oraindik murgilduta jarraitzen badute ere. PMIren azken datuek horixe iradokitzen dute. Izan ere, munduko ekonomia nagusien artean baikortasuna hoztu egin da eta PMI konposatuaren datuak berriz ere hedapen eremuaren azpitik (50eko balioaren azpitik) jaitsi dira, baina adierazle horrek, ordea, Txinako ekonomia bete-betean hazten ari dela erakusten du, azaroan PMI konposatua 55,7an kokatu baitzen, hots, gutxienez azken zortzi urteetako mailarik gorenean.

Garatzeko bidean dauden gainontzeko ekonomiei dagokienez, birusaren hedapenak eta bera gelditzeko neurriek ekonomia jarduera nabarmen okertu zuten bigarren hiruhilekoan, batez ere Latinoamerikan, eta herrialde gehienetan euste neurriak lasaitu izanak jarduera ekonomiko globala pixkanaka suspertzea ekarri zuen urteko hirugarren laurdenean. Zehazkiago adierazita, aurtengo hirugarren hiruhilekoan Brasilek -%3,9ra leundu zuen beherakada, Mexikok -%8,6ra, eta Indiak -%7,5era. Datozen hilabeteetarako aurreikuspenak ere ez dira onak. Izan ere, pandemiaren eragina oso handia da oraindik, eta herrialde horietan ez da politika ekonomiko handiko neurririk ezarri COVID-19aren shocka arintzeko.


Ekonomia aurreratuen artean, jarduera globalaren susperraldi mailakatu heterogeneoa izan zen eskualde eta sektoreen arabera, ekonomia suspertzearen eta pandemia kontrolatzearen arteko oreka zailak baldintzatuta. Zehazki, ekonomia aurreratuen tasak, oro har, -%4,1era arte egin zuen gora, urteko bigarren hiruhilekoan -%11,6 jaitsi ondoren.

ELGEren ekonomia nagusien artean, jarduera adierazle berrienetako batzuek erakusten dute AEBetako ekonomia gainontzeko ekonomia aurreratu gehienak baino hobeto ari dela eusten. Hain zuzen ere, herrialde hartako BPGa -%2,9ra igo zen. Kontsumo pribatuaren gorakada (-%10,2tik -%2,9 ra pasa zen) oso modu positiboan nabarmendu zen, ondasun iraunkorretako eta ez-iraunkorretako gastuek lagunduta, igoera positiboekin berrekin baitzieten. Kontsumo pribatuaren hobekuntza hori gainontzeko ekonomia aurreratu gehienetan ere hautematen da. Izan ere, mugikortasunaren murrizketek familien gastua murriztea eragin zuten hilabete batzuen ondoren, murrizketa horien leuntzeak ondasunen eskariak gora egitea ekarri du, espero izatekoa eta logikoa dena, batez ere ondasun iraunkorren eskariak, hala nola ibilgailuenak eta etxetresna elektriko txikiak. Horri esportazioen eta inportazioen jaitsiera txikiagoa gehitu behar zaio, kanpoko saldoak jarduerari bi hamarren ematea ahalbidetu baitzuen.


Oraingoz, munduko lehen potentzia susperraldira bideratuta dagoela dirudi, azaroko PMI konposatuaren adierazleak berresten duen bezala, zeren eta adierazle hori 57,9an kokatu baita eta bosgarren hilabetez jarraian 50 puntuko atalasearen gainetik eroso dago. Hala eta guztiz ere, AEBetako ekonomiaren bizitasuna kaltetuta gera daiteke herrialde horretan dagoeneko gertatzen ari diren koronabirus berragertzeengatik, eta ez litzateke harrizkoa izango bigarren olatuaren eragina zertxobait beranduago heltzea ekonomia horretara, lehenengoarekin gertatu zen bezala. Halaber, kontrapuntu gisa, lan merkatuaren okertze nabarmena gehitu behar zaio. Izan ere, langabezia tasa %8,4 da oraindik, beste ekonomia aurreratu batzuek erregistratutakoarekin alderatuta apala dena, baina osasun krisiaren aurreko %3,8tik oso urrun dagoena.

Munduko ekonomia. BPGa (II) Urte arteko hazkunde tasak

AEB



Europar Batasuna 27



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Japoniak ere susperraldi mailakatua bizi zuen eta bertako BPGa $-\%5,7$ ra arte igo zen. Maiatzeko konfinamendu partziala amaitu zenetik, industriaren ekoizpenak eta ondasunen esportazio errealek goranzko joera erakutsi zuten. Orobat, abuztuan inportazioek behera egin zuten laugarren hilabetez jarraian. Herrialde horretan COVID-19aren kasuak ugaritu izanak eta baldintza meteorologiko txarrek uda hasieran susperraldiaren erritmoa moteldu zuten aldi baterako, baina uztailaren amaieratik pandemiaren kontrolak kontsumitzaileen konfiantza hobetzea ekarri du, eta horrek susperraldia ekarri du. Zehatzago esanda, apirilean PMI konposatua 25,8ra arte erori ondoren, adierazle horrek goranzko norabide leunari ekin zion, eta azaroan apur bat eten da. Hala ere, urtarrilean izan ezik (50,1), Japoniako ekonomiak ez du hedapen faseari berrekitea lortu urte osoan zehar. Hain zuzen ere, Japoniako ekonomiak 14 hilabete daramatza atzeraldi fasean eta lau hiruhileko jarraian aldakuntza tasa negatiboetan. Izan

ere, pandemia alde batera utzita, Japoniako ekonomiak ez du oinarri sendorik finkatu bere hazkundearen oinarriak ezartzeko.

27 kidez osatutako Europar Batasuneko jarduera ekonomikoak ere suspertze handia izan zuen, bigarren hiruhilekoko $-13,9$ tik hirugarreneko $-4,2$ ra hobetu baitzen. Eremuko ekonomia nagusi guztien bilakaera antzekoa izan zen. Maiatzetik aurrera, martxoan eta apirilean ezarritako konfinamendu neurriak lasaitu egin ziren, eta, horri esker, eskarien agregatuek emaitza hobeak eskuratu zituzten udako hilekoetan, batez ere kontsumo pribatuak eta inbertsioak, galdutako eremuaren zati bat berreskuratu baitzuten. Hala ere, horietako batek ere ez zuen lortu pandemia aurreko mailetara itzultzea eta tasa negatiboetan jarraitu zuten. Herrialdeka, Frantziaren gorakada handia nabarmendu zen, BPGa $-3,9$ izan baitzen, hau da, aurreko erregistroarekin alderatuta 15 puntuko igoera izan zuen. Ondoren, Italiarena aipatu behar da, $-5,0$ jaitsi baitzen aurreko $-18,0$ aren aldean. Espainiak, berriz, 12,6 puntu egin zuen gora, BPGa $-9,0$ an kokatu baitzen; Portugalek, berriz, 10,7 puntu egin zuen gora, aurreko $-16,4$ tik $-5,7$ ra igaro baitzen. Alemania ere tasa negatiboetan mantendu zen ($-4,0$), baina bere igoera txikiagoa izan zen, 7,2 puntukoa.

Hiruhileko arteko tasetan, joera antzekoa izan zen, baina askoz ere biziagoa. Espainiak $-17,9$ tik $-16,4$ ra pasa zen, hau da, 34,5 puntuko susperraldia bereganatu zuen. Frantziak 32,5 puntu egin zuen gora, eta Italiak, berriz, 28,9 puntu. Alemaniak, beste behin, 18,3 puntura mugatu zuen bere eskalada. Hazkundearen diferentzia hori espero izatekoa zen, kontuan hartuta Alemaniako ekonomia izan zela uzkurdura gutxien jasan zuena urteko bigarren hiruhilekoan, eta Espainiakoa izan zela, alde handiz, kaltetuena. Hala ere, ekonomiaren suspertze garrantzitsu hori ilusio faltsua izan liteke. Adierazle ekonomiko berriek erakusten dute hobetzeko bideak bizitasuna galdu duela uda amaieratik, kutsatzeak ugaritzen ziren heinean. Hala baieztatzen du PMI konposatuen azaroko narriadura berriak. Eurogunearen kasu zehatzean, uztailetik adierazle hori moteltzen joan da, azaroan atzeraldiko eremuan amaitu arte (45,3). Oraingoan, manifakturen indizeak nolabaiteko baikortasuna jasotzen du, baina zerbitzuei dagokiena da (41,3), neurri handi batean, gizartean urruntzeko neurriekiko duen sentsibilitatearen ondorioz, bilakaera baldintzatzen duena.

Lan merkatuari dagokionez, martxoan murrizketak ezarri izanak zuzenean eragin zion langabezia tasari, $6,6$ tik $7,8$ ra igo baitzen uztailean, krisi berri honen puntu gorena baita. Nahiz eta estatuek enpleguaren beherakada gutxitzeko hainbat neurri ezarri, pandemiak 2.750.000 pertsona langabeziara eraman ditu lau hilabetetan. Ondoren, langabezia tasak beheranzko joera txiki bat izan du, eta irailean zein urrian $7,6$ an kokatu da. Beraz, 16.236.000 langabe daude eta pandemiaren aurreko mailetara itzultzeko oraindik 2.400.000 lanpostu berreskuratu behar direla agerian uzten du.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

Martxoan eta apirilean hartutako muturreko euste neurrien ondoren, ondorengo hilabeteetako deseskalatzeak eta jarduerara itzultzeak ahalbidetu zuten EAEko BPGak urte arteko jaitsiera tasa $-7,5$ era arte leuntzea, aurreko datua baino hamabi puntu gorago kokatuz, baina oraindik ez dira pandemiaren aurreko balioak berreskuratu. Tasa horrek 2009ko aurreko finantza krisian jasotako edozein tasa baino askoz handiagoa izaten jarraitzen du, baina, aurreikuspenen arabera, egungo susperraldia ordukoa baino azkarragoa izango da. Egoera antzekoa da inguruko herrialdeetan ere: Alemania ($-4,0$) eta Frantzia ($-3,9$) dira gutxien kaltetutako ekonomiak, eta Erresuma Batua ($-9,6$) eta Espainia ($-9,0$) egoera atzeratuagoan daude.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2019		2020		
			III	IV	I	II	III
BPG erreala	3,1	2,2	2,1	2,2	-3,2	-19,5	-7,5
Nekazaritza eta arrantza	1,7	3,2	2,8	5,9	3,5	-6,1	-7,2
Industria eta energia	2,0	1,3	1,2	2,2	-3,6	-26,7	-9,5
- Manufakturen industria	1,8	1,2	1,2	1,7	-4,3	-27,8	-9,4
Eraikuntza	4,0	3,4	3,2	2,1	-2,7	-17,9	-9,3
Zerbitzuak	3,1	2,5	2,4	2,1	-2,8	-17,5	-6,5
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	4,3	2,6	2,3	2,1	-4,2	-21,8	-10,2
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	1,8	2,3	2,6	2,0	1,2	0,7	1,1
- Gainontzeko zerbitzuak	3,0	2,5	2,3	2,2	-4,0	-24,2	-8,1
Balio erantsi gordina	2,9	2,3	2,1	2,2	-3,0	-19,6	-7,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,9	2,2	1,8	2,3	-5,1	-18,4	-8,5

Iturria: Eustat.

Sektoreen artean, gorakada handiena industrian gertatu zen: bigarren hiruhilekoan $26,7$ ko beherakada pairatetik hirugarrenean $9,5$ eko jaitsiera jasotzera pasa zen. Manufakturrei dagozkien zifrak horien antzekoak dira. Mailari dagokionez, hirugarren hiruhilekoko jarduera bigarrenekoa baino ia hogeita hamar puntu handiagoa izan zen, eta 2005ean egindakoaren parean dago. Ondorioz, industrian bost urteko atzerakada dago, nahiz eta koiunturazko datu berriek berrindartze prozesuaren jarraitutasuna adierazten duten.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2019		2020		
			III	IV	I	II	III
Industria							
Industria produkzioaren indizea	2,2	1,6	1,5	2,6	-5,7	-27,6	-12,2
Negoio zifren indizea	5,8	-0,6	-2,1	1,1	-11,4	-33,0	-13,6
Industria giroaren indizea	-6,9	-7,1	-6,7	-6,5	-11,0	-35,2	-24,1
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,8	0,6	0,3	0,1	-0,8	-3,7	-4,5
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	12,3	8,7	6,9	9,0	1,9	-18,1	-11,0
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	20,3	-7,1	-23,2	-23,5	-20,7	-20,9	-21,8
Etxebizitzen salerosketak	13,8	2,2	-6,3	2,8	-18,0	-34,6	-2,5
Gizarte Segurantzako afiliazioa	3,6	3,0	2,5	1,9	1,3	-2,8	-0,8
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko bidaiariak	10,5	8,5	10,2	4,9	-20,9	-99,0	-70,0
Hoteletan igarotako gaualdiak	7,2	3,7	3,6	0,5	-21,6	-92,2	-50,8
Negoio zifren indizea	7,4	4,2	4,8	3,5	-5,2	-26,6	-9,1
Zerbitzuen koiuntura indizea	1,1	0,9	0,5	0,6	-5,8	-22,5	-5,9
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,1	2,3	2,7	2,6	2,1	-1,9	-1,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantzak eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriaren koiunturako adierazle horietako bat IPI da, apiriletik (-%38,9) urrira (-%7,9), hau da, argitaratutako azken hilerak, etengabeko suspertze profila erakusten duena. Horrek esan nahi du sektoreak bat-bateko beherakada handia ezagutu zuela, baina susperraldia ere azkarra izaten ari dela (sei hilabete hogeita hamar puntu baino gehiago hobetu da), nazioarteko merkataritza eta barneko merkaturak berpiztu ahala. Espero izatekoa da hilabete batzuk barru urte honen hasieran izan zuen ekoizpen mailara itzuliko dela.

Produktu multzoen arabera, energiaren ekoizpenean ikusten dira zailtasunik handienak, gainerakoek ez bezala, beherakada areagotzen baitu hilabeteak igaro ahala. Izan ere, urrian urte arteko tasa -%26,7 izan zen. Aitzitik, ekipamendurako ondasunen ekoizpena oso azkar suspertu da, apirilera -%48,0tik urriko -%5,0ra igaro baita, inbertsiorako igurikimenak hobetu ahala. Antzera jokatu dute kontsumoko ondasunek eta bitarteko ondasunek ere, urrian -%6,8ko tasak izan baitzituzten.

Ekoizpenarekin batera, industria sektorearen igurikimeneke ere joera positiboa erakusten dute azken hilabeteetan. Zehazkiago adierazita, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren datuekin osatzen den industria giroaren indizeak -30 mailatik beherako balioak erregistratu zituen apiriletik uztaillera bitartean, eta horrek adierazten du ezkortasun handia zegoela sektorean, 2009an bizi izan zenarekin bakarrik alderatu daitekeena. Hala eta guztiz ere, urrian (-1,1) eta azaroan (-3,1) balioak baikortasuntzat interpreta daitekeen eremu batean kokatu dira. Igurikimene hobekuntza hori ekoizpenaren joerari eta eskaera-zorroari buruzko gero eta iritzi hobean oinarritzen da.

Eraikuntzak bere balio erantsiaren %9,3 galdu zuen 2020ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Jaitsiera tasa hori bigarren hiruhilekoan izandakoaren ia erdia da (-%17,9), eta, beraz, bilakaerak hoberrantze egin duela ondorioztatu daiteke. Eraikuntzaren koiuntura indizearen informazioak adierazten du sektorearen bilakaera positibo hori bi osagaietan gauzatu dela, baina, bereziki, obra zibilean. Izan ere, obra zibilak indartsu ekin dio berriro bere jarduerari, aurreko urtearekin alderatuta gora egin arte (%5,8). Beste aldetik, eraikinen atalak bost puntu murriztu du urte arteko beherakada (-%13,4), higiezinaren merkaturak zertxobait piztu delako, etxebizitza salmentek eta etxebizitza berrietarako bisatuek iradokitzen duten bezala.


Zerbitzuen balio erantsiak beste jaitsiera bat izan zuen hirugarren hiruhilekoan (-%6,5), baina bigarrenekoa (-%17,5) baino askoz ere txikiagoa. Zerbitzuek bi alde kontrajarri erakutsi dituzte berriro, zerbitzu publikoak edo pribatuak diren kontuan hartuta. Lehenengo kasuan, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen taldeak %1,1eko urte arteko hazkundea izan zuen, aurreko bi hiruhilekoetan bezalatsu. Hala ere, hiru aldien batez bestekoa %1,0 ingurukoa da, eta 2019ko batez bestekotik (%2,3) urrun dago. Bigarren kasuan, merkataritza, ostalaritza eta garraioa (-%10,2) zein gainerako zerbitzuak (-%8,1) bigarren hiruhilekoko beherakada handietatik aldentu ziren, baina duela urtebeteko balioetatik urrun daude oraindik. Ostalaritzak oraindik ere dituen mugek zaildu egingo dute jarduera hori urte arteko tasa positiboetara itzultzea.

Sektorearen koiunturako datuen arabera, kutsatzeen bigarren olatuari aurre egiteko hartutako murrizketek gehien erasandako jarduera adarrek portaera etsigarriena erakusten dute. Hala, turismoari lotutako estatistikek hobekuntza oso mugatua erakusten dute bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. Zehatz-mehatz adierazita, hotel establezimenduetako gaualdiak %50,8 jaitsi ziren hirugarren hiruhilekoan, eta EAEko aireportuetako bidaiari mugimenduak %70,0 egin zuen behera. Hala ere, merkataritzak irudi hobea eman du, INEren txikizkako merkataritzaren estatistikak adierazten duen bezala, ekainetik urrira bitartean tasa positiboak izan baititu bost hilabetez. Sektorearen estatistika globalen arabera, bigarren hiruhilekoan %20tik gorako beherakadak izatetik hirugarrenean balio apalagoak izatera igaro da, Eustaten indizearen arabera -%5,9 eta INEren negozio zifraren arabera -%9,1.


Lan merkatuaren analisiak azalpen bat behar du behar bezala ulertua izateko, haren bilakaera aztertzeko erabiltzen diren estatistika nagusietako bik ematen duten irudia oso desberdina baita. Izan ere, kontu ekonomikoen enplegua bat dator benetan egindako lanaldi osoekin, eta zenbatespenaren arabera jaitsiera oso esanguratsuak gertatu dira: $-17,2$ bigarren hiruhilekoan eta $-6,2$ hirugarrenean. Beste aldetik, Gizarte Segurantzako afiliazioak adierazten du %3tik beherako jaitsierak jaso direla bi hiruhilekoetan, baina gogoratu behar da aldi baterako enplegua erregulatzeko espediente batean dauden pertsonen afiliatuta jarraitzen dutela, aldi horretan lanik egin ez badute ere. Azaroan, ia 30.000 pertsona zeuden ABEE batean, apirileko 139.000 lagunetatik urrun, baina urrian baino 7.000 pertsona gehiago ziren. Espedienteen zuzenketa kontuan hartuta, hirugarren hiruhilekoko afiliazioaren beherakada %5,8koa izango litzateke, eta azarokoa, ezaguna den azkena, %5,2koa.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantza

Kontu ekonomikoen arabera, lanaldi osoko 60.800 lanpostu galdu dira 2019ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Kopuru horretatik, 39.800 lanpostu zerbitzuei dagozkie eta 18.700 industriari. Eraikuntzan eta lehen sektorean jaitsiera txikiagoak izan dira, 2.200 eta 100 lanpostu baino gehixeago, hurrenez hurren. Balio horiek, urtetik urterako aldakuntza ehunekotan adierazita, $-8,9$ da industrian, sektore kaltetuena baita, $-5,7$, berriz, zerbitzuetan eta, azkenik, $-3,6$ eraikuntzan.

Azaroan, Gizarte Segurantzako afiliazioak aurreko urteko hilabete berekoak baino %2,1 txikiagoak izan ziren. Tasa hori azken hilabeteetan zertxobait bizkortu da, kutsatzeen bigarren olatua eta hartutako murrizketa berriak zabaldu diren heinean. Tasa horrek esan nahi du duela urtebete baino 21.000 afiliazio gutxiago daudela gaur egun. Beherakada horren zatirik handiena manufaktura industrietan eta ostalaritzan gertatu da, bi jarduera horiek 6.500 afiliazio baino pixka bat gehiago galdu baitituzte. Horietatik urrun, baina haiek ere zenbaki esanguratsuak erakutsiz, merkataritza (ia 2.900 afiliazio gutxiago), beste zerbitzu batzuk (2.300 afiliazio gutxiago) eta jarduera artistikoak (1.600 gutxiago) daude. Aitzitik, afiliazioan aurkitzen diren gorakada garrantzitsu bakarrak osasun alorreko jardueretan gauzatu dira, 3.100 afiliazio gehiago lortu baitituzte. Beste jarduera batzuetan ere gora egin du afiliazioak, baina inoiz ez da 100 afiliazio berri izatera iritsi.

Ekoizpenaren eta egindako enpleguaren bilakaerak lan faktorearen itxurazko produktibitatearen saldoa -%1,4an utzi dute. Hau da, hirugarren hiruhilekoz jarraian, enpleguaren murrizketa BPGarena baino txikiagoa izan da. Ezohiko kontua da hori, zeren eta urterik urte produktibitate irabaziak (efizientzia irabaziak) lortzea izaten baita ohikoena. Aurten, urteko batez bestean produktibitate galera erregistratuko den lehen urtea izan daiteke. Hala ere, hirugarren hiruhilekoko zifra bigarren hiruhilekoko ezohiko emaitzatik(-%2,8) urruntzen da, egoera normalago batera itzultzeko urratsak eman ahala. Ekoizpen sektore guztiek eraginkortasun galera izan zuten hirugarren hiruhilekoan, baina deigarria da eraikuntzak (-%5,9) hautemandako intentsitatea, aurreko hiruhilekoetakoa baino handiagoa baita. Bestalde, zerbitzuetan produktibitatearen galera %0,9koa izan zen, aurreko datua berdinduz. Azkenik, industrian zuzendu egin da bigarren hiruhilekoko anomalia (-%8,2), eta oraindik ere zifra negatiboa jaso da, baina ez oso esanguratsua (-%0,6).

Barne eta kanpo eskaria

Hirugarren hiruhilekoaren ezaugarrietako bat, eskariaren ikuspegitik, bigarreanean erregistratu zen kanpoko saldo atipikoaren zuzenketa da. Hain zuzen ere, udaberriko hilabeteetako esportazioen eta inportazioen beherakada handiek 1,3 puntuko ekarpen negatiboa utzi zioten hazkunderari, eta zifra hori aurrez EAEko ekonomiaren hazkunde handiko faseetan baino ez zen lortu. Hirugarren hiruhilekoko informazioak iradokitzen du gertaera puntual bat izan zela, zeren eta azken hiruhileko horretan kanpoko saldoak berreskuratu egin du azken urteetan erakutsi duen neutraltasuna eta hamarren bat baino ez dio kendu hazkunderari. Esportazioak (-%15,5) eta inportazioak (-%14,8) nabarmen murriztu ziren berriro hirugarren hiruhilekoan, baina aurreko aldiko aparteko jaitsieretatik urrun, pandemiaren erabateko gorakada bizi zenean.

Barne eskariak beherakada handia erakutsi zuen hirugarren hiruhilekoan, $-7,2\%$ ko urte arteko tasarekin. Horrek esan nahi du hamar puntuko susperraldia izan zuela aurreko aldiko balioarekin alderatuta. Jarduera ekonomikoan oraindik izan ziren mugek pandemiaren aurreko egoerara itzultzea eragotzi zuten. Barne eskariaren bi ataletatik, azken kontsumoko gastua $-5,9\%$ arte hobetu zen eta kapital eraketa gordinak $-11,4\%$ ko tasa izan zuen.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2019		2020		
			III	IV	I	II	III
BPG erreala	3,1	2,2	2,1	2,2	-3,2	-19,5	-7,5
Gastua azken kontsumoan	2,6	1,9	1,8	1,6	-3,0	-15,4	-5,9
- Familien gastua kontsumoan	3,0	1,8	1,6	1,5	-4,8	-20,3	-8,5
- Adminis. gastua kontsumoan	1,2	2,2	2,4	2,3	4,1	3,0	3,6
Kapital eraketa gordinak	4,9	3,3	2,7	2,7	-3,6	-23,0	-11,4
- Ekipamendu ondasunak	4,5	2,1	0,5	2,5	-5,0	-30,1	-12,2
- Gainontzeko inbertsioa	5,1	4,0	4,0	2,8	-2,8	-18,8	-10,9
Barne eskaria	3,2	2,2	2,0	1,9	-3,1	-17,2	-7,2
Esportazioak	2,7	0,4	-0,6	1,4	-7,5	-30,1	-15,5
Inportazioak	2,8	0,4	-0,6	1,0	-7,2	-26,4	-14,8

Iturria: Eustat.

Administrazio publikoen kontsumoaren portaera urrun dago familien kontsumoak erakusten duenarekin. Izan ere, lehenak oso gorakada esanguratsua izan zuen, $3,6\%$ koa, urteko lehen sei hilekoaren balioekin bat datorrena eta 2018an eta 2019an erregistratutako batez bestekoa gainditzen duena. Beraz, jarduera publiko garrantzitsua dago pandemiak gizartean utzi dituen ondorioak konpentsatzeko. Bestalde, kontsumo pribatua nabarmen gelditu zen bigarren hiruhilekoan ($-20,3\%$) eta pixkanaka aktibatu zen hurrengo hilabeteetan, $-8,5\%$ ko tasara iritsi arte. Tasa horrek ekonomiaren batez bestekoa baino txikiagoa izaten jarraitzen du eta horrek esan nahi du familiek zuhurtziazko aurrezpena aukeratzen ari direla gaur egungo egoera zalantzarik. Enpleguari buruzko ziurgabetasunak ere ez du kontsumoa handitzen laguntzen.

Kapital eraketa gordinak kontsumo pribatuaren antzeko bilakaera erakusten du: beherakada handia izan zuen bigarren hiruhilekoan ($-23,0\%$) eta susperraldi handia hirugarrenean ($-11,4\%$), baina nahikoa izan ez dena. Jaitsiera askoz ere handiagoa izan zen ekipamendurako ondasunetan

(-%30,1), orain %12,2ra mugatzen baitute beherakada. Beste aldetik, gainerako inbertsioa, eraikuntzan egindakoa barne, %10,9 murriztu zen hirugarren hiruhilekoan.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2019		2020		
			III	IV	I	II	III
Kontsumoa							
Azalera eta kate handietako salmentak	1,8	1,2	1,6	0,0	1,6	-0,2	3,4
Txikizkako merkataritza indizea	0,7	0,9	1,5	0,2	-3,6	-15,6	2,1
Kontsumo ondasunen ekoizpena	5,5	2,4	2,1	-0,6	1,8	-15,4	-7,7
Kontsumo ondasunen inportazioa	-6,4	0,6	3,2	3,5	1,2	-4,3	-1,8
Turismoen matrikulazioa	4,6	-2,0	-7,9	5,5	-34,0	-54,6	16,0
Inbertsioa							
Ekipo ondasunen ekoizpena	4,3	1,8	-1,6	7,1	-6,1	-27,7	-10,4
Ekipo ondasunen inportazioa	7,0	5,9	5,4	3,9	-9,5	-31,8	-12,5
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	18,0	-16,7	-20,5	-23,2	-25,4	-51,3	-4,4
Etxebizitza berriak eraikitzeako oniritziak	20,3	-7,1	-23,2	-23,5	-20,7	-20,9	-21,8
Lizitazio ofiziala	-25,6	11,7	-5,8	21,9	-60,8	-30,2	-30,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioaren susperraldia jarraipena izaten ari da laugarren hiruhilekoan ere, dagoeneko argitaratu diren koiunturazko datuen arabera. Zehazkiago adierazita, urriko ekipamendurako ondasunen ekoizpenak, partzialki barneko merkatura bideratzen denak, beherakada erritmoa leundu zuen %5,0ra arte, gutxi gorabehera hirugarren hiruhilekoko datuaren erdia baita. Aldiz, mota horretako ondasunen inportazioak %10,0 egin zuen behera urrian, hirugarren hiruhilekoan baino 2,5 puntu gutxiago. Eraikuntzan egindako inbertsioari dagokionez, iraileko datu koiuntural guztiek (argitaratu diren azkenak baitira) aldakuntza tasa positiboak izan zituzten, baina ohartarazi behar da estatistika horiek portaera gorabeheratsua izan ohi dutela. Esate baterako, etxebizitzak eraikitzeako baimenak %19,0 igo ziren hilabete horretan, eta lizitazio ofiziala %43,9, obra zibilean eta eraikuntzan hazkundeak jasoz.

Lehenago ere adierazi den bezala, bigarren hiruhilekoan kanpoko saldoak egindako ekarpen negatibo handiaren ondoren, hirugarrenean kanpoarekiko merkataritzak berreskuratu egin zuen azken garaietan izan duen posizio neutroa, eta BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena hamarren bat kentzera mugatu zen. Prozesua Europan bizi izan denaren antzekoa da, bai Eurogunean, bai

Europar Batasunean. Izan ere, bigarren hiruhilekoan puntu bateko ekarpen negatiboa izatetik, hirugarren hiruhilekoan hiru hamarren baino ez zaizkio kendu BPGari.

Zehatzago adierazita, ondasunen eta zerbitzuen esportazioak, termino errealetan, %15,5 murriztu ziren, eta inportazioak, berriz, %14,8. Kopuru horiek, termino nominaletan, -%16,3 eta -%15,0 izatera igaro ziren, eta, beraz, esportazioen eta inportazioen prezioek ez zuten eragin erabakigarrik izan aldagai horien bilakaeran.

Atzerrira bidalitako ondasunen salmentek hobekuntza erlatiboa eskuratu zuten hirugarren hiruhilekoan, jarduera ekonomikoa normaltasunera itzuli ahala. Nabarmendu behar da urte bateko hirugarren hiruhileko batean, oro har, esportazioak bigarren hiruhilekokoak baino txikiagoak izaten direla, neurri handi batean oporraldiagatik. Hala eta guztiz ere, 2020an hirugarrenaren emaitzak bigarrenarena gainditu du, azken hori baldintzatuago baitago Euskadin eta helmugako merkatuetan birusaren hedapena geldiarazteko hartu ziren neurrien ondorioz. Zehazki, hirugarren hiruhilekoan aurreko aldiari galdu zen 5.000 milioi euroko kopurua berreskuratu zen, baina datu hori 2019koa baino %12,5 txikiagoa da. Hala ere, hileroko bilakaerak hobekuntza erakusten du hilabeteak igaro ahala.

Produktu multzoen araberako banakapenak adierazten du erregai mineralek zailtasunak izaten jarraitzen dutela kanpoko merkatuetara iristeko, eta %62,6ko jaitsiera izan zutela 2019ko datuekin alderatuta, bigarren hiruhilekoko tasaren antzekoa baita. Aitzitik, energetikoak ez diren ondasunen esportazioek jarduera hobea izan dute: -%31,9 bigarren hiruhilekoan eta -%7,8, berriz, hirugarrenean. Are gehiago, irailean, argitaratu den azken hilekoan, osagai horren urte arteko aldakuntza tasa ia nulua izan zen (-%0,5).

Esportatutako produktuen talde nagusietatik, nekazaritza alorreko produktuak izan ziren pandemiaren ondorioak nabaritu ez zituzten bakarrak, eta salmentetan igoerak izan zituzten urteko hiru hiruhilekoetan. Bestalde, makinaren eta aparatuen salmentak aldakuntza tasa positiboak berreskuratu zituen (%3,6) hirugarren hiruhilekoan. Orobat, garraio materialak nabarmen hobetu zuen emaitza, bigarren hiruhilekoan -%46,3 izatetik hirugarrenean -%13,3 izatera igaro baitzen. Metal arrunten eta horien manufakturen bilakaera orokorraren antzekoa da. Izan ere, beherakada handia izan zuen bigarrean (-%32,2), eta hirugarrenean, berriz, jaitsiera apalagoa izan zen (-%12,2). Paperaren atalak dinamika propioa du, gainerakoetatik bereizita. Izan ere, salmentetan beherakadak izan ditu 2019ko erdialdetik eta ez du jaitsiera handirik erakutsi bigarren eta ondorengo susperraldian, baizik eta salmenten etengabeko galera, pandemian zehar apur bat areagotu dena.

Jaitsiera erritmoaren moteltzea EAEko esportazioen helmugako eremu ekonomiko guztietan gertatu zen, eta emaitza hobea izan zuen ingurune hurbilenak. Hala, ELGEko herrialde garatuetara egindako bidalketak %11,6 jaitsi ziren hirugarren hiruhilekoan, urte arteko tasan, aurreko aldian %33,8 murriztu ziren bitartean. Bestalde, garatzeko bidean dauden herrialdeetara bideratutako salmentek %16,6 egin zuten behera, hau da, 22 puntu egin zuten gora bigarren hiruhilekoko beherakada biziarekin alderatuta.

ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2018	2019	2019		2020		
			IV	I	II	III	III
GUZTIRA	6,8	-0,4	2,3	-9,9	-34,7	-12,5	5.095.142
ELGE	7,9	-0,2	0,0	-9,4	-33,8	-11,6	4.250.893
Eurogunea	7,1	-0,2	-1,2	-7,0	-30,8	-5,3	2.810.082
Alemania	1,6	0,1	1,5	-1,8	-26,0	1,2	941.705
Frantzia	5,2	0,8	-2,7	-11,6	-36,7	-9,7	771.863
Italia	13,8	-5,9	-1,8	-13,3	-22,2	-7,2	234.622
Erresuma Batua	14,5	34,2	31,0	-24,0	-60,5	-46,0	334.995
AEB	16,4	-15,5	-10,7	-18,7	-28,1	-21,0	309.674
ELGETik kanpokoak	2,2	-0,9	14,4	-12,0	-38,9	-16,6	844.249

Iturria: Eustat.

Euroguneko merkatua da, itxuraz, bizkorren suspertzen ari dena, zeren eta %30,8ko beherakada handia jasotzetik %5,3ko jaitsiera tasa izatera igaro baita hirugarren hiruhilekoan. Hobekuntza erlatibo hori ibilgailu automobilen salmentaren susperraldiaren ondorioa da, aurreko urteko kopuru berera iritsi baitzen (810 milioi euro), eta baita makina eta tresna elektronikoen bultzadari ere zor zaio, urte batetik bestera %6,9 igo baitziren. Aitzitik, galdaketa taldeetan zailtasunak daude oraindik, nahiz eta bi kasuetan jaitsierak azken bost hiruhilekoetako txikiak izan. Era berean, erregai mineralen esportazioak (eremu horretara bidalitako guztiaren %3,8 biltzen baitute) %68,1 egin zuen behera.

Herrialdeka, Alemaniako merkatuak izan du bilakaerarik onena: aurtengo lehen erdiko geldialdia atzean utzi du, eta urtetik urterako tasa positiboak berreskuratu ditu, nahiz eta oraindik apalak izan (%1,2). EAEn eta Alemaniaren arteko merkataritza harremanak, nagusiki, ibilgailu automobiletan oinarritzen dira, herrialde horretara esportatutako guztiaren erdia baino gehiago

automobilak direlako. Produktu talde horrek %10,4ko igoera izan zuen hirugarren hiruhilekoan eta atzean utzi zuen bigarren hiruhilekoko jaitsiera (-%29,3). Automobilgintzaz gain, kautxuak eta galdaketako produktuek ere badute nolabaiteko pisua esportazioen egituran, eta urtetik urterako igoerak izan zituzten, baina txikiagoak. Aitzitik, makina elektronikoen beherakada txikia izan zuten (-%3,1), baina aurreko jaitsieretatik urrun.

Hobekuntza erlatiboa nabarmena da Frantziako merkatuan ere, baina ez du lortu tasa positiboetara itzultzea. Zehazki, bigarren hiruhilekoan -%36,7 jasotzetik hirugarrenean -%9,7 eskuratzera igaro zen. Pixkanaka-pixkanaka, Frantzia Alemaniatik urruntzen ari da EAEko produktuen lehen helmuga izateko lehian, hein batean energia osagaiagatik, pisu handiagoa izan baitu aldameneko herrialdeari egindako salmentetan, eta orain %61,9 murriztu baita. Gainerako produktuei dagokienez, autoen salmentak moteldu egin zuen jaitsiera erritmoa, -%8,2ra arte. Kautxuaren eta bere manufakturen salmentak soilik egin zuen nabarmen gora urte arteko tasan (%25,0).

Italian, esportazioen joera Frantziako merkatuaren antzekoa izan zen, bigarren hiruhilekoan %22,2ko beherakada garrantzitsua izatetik hirugarrenean %7,2ko jaitsiera moderatua izatera igaro baitzen. EAEk herrialde horri egiten dizkion salmenta guztien ia %60 biltzen duten produktu nagusien lau multzoetatik, makineria elektronikoa (%12,9) eta elektrikoak (%3,3) soilik izan zituzten urte arteko igoera positiboak. Aitzitik, kautxuaren esportazioak (-%18,8) eta ibilgailu automobilenak (-%17,5) nabarmen egin zuten behera.

Erresuma Batua aipatutako Europako herrialdeetatik urrun kokatu zen eta hirugarren hiruhilekoan herrialde horretarako esportazioak %46,0 murriztu ziren, Europako beste merkatu batzuetan baino askoz gehiago. Herrialde horretako salmentak oso baldintzatuta egon dira azken hiruhilekoetan, CAF euskal enpresarekin egindako kontratuei zegozkien trenbideetako ibilgailuak eman baitzituzten. Partida horrek garrantzitsua izaten jarraitzen du, baina 2019ko azken hiru hiruhilekoetan saldutako 200 milioietatik 2020ko hirugarren hiruhilekoan saldutako 60 milioira igaro da, hau da, %72,8ko jaitsiera izan du. Baina produktu horiek alde batera utzita, herrialde horretara esportatzeko egituran pisua duten beste partidek ere ez dute hobekuntzaren zantzu argirik erakutsi. Horrela, ibilgailuen salmenta %44,1 murriztu zen, eta burdinaren eta altzairuaren galdaketarena %46,7. Azkenik, makineria elektronikoa %26,3 gutxitu zituen salmentak.

AEBak ere merkatu garrantzitsua dira EAEko enpresentzat, salmentei dagokienez Italia edo Erresuma Batuaren antzekoa, baina horiengandik bereizten dituen ezaugarri propioak dituzte. Merkataritza salerosketek erregai mineralen esportazioaren eragina izan dute. Hain zuzen ere, duela urtebete salmenta guztien herena baino zertxobait gehiago ziren, baina 2020ko hirugarren hiruhilekoan %10 baino zertxobait gutxiago izan ziren. Beraz, produktu horien balioa %79,3 jaitsi

da. Merkatu hartan beste produktu batzuk ere finkatzen ari dira, hala nola makineria, salmenta guztien %36,7 biltzen baitu eta salmentei eutsi baitie. Gainera, hiruhileko horretan indartsu agertu da ibilgailuen esportazioa; izan ere, 2019an %2,6 izatetik 2020ko hirugarren hiruhilekoan %22,8 izatera igaro da, baina baliteke salmenta puntuala izatea, jarraipenik gabekoa. Nolanahi ere, herrialde hartako presidentetza aldatzeak merkataritza harremanak erraztu ditzake eta segurtasuna eman diezaieke merkatu horretara esportatzen duten EAEko enpresei.

Esportazio gehienak herrialde garatuetara bideratzen badira ere, garapen bidean dauden herrialdeek atzerrira egindako salmenta guztien ia %20 hartzen dute. Zehazkiago adierazita, hirugarren hiruhilekoan 844 milioi euroko balioa zuten produktuak saldu ziren merkatu horretan, Italiara, Erresuma Batura eta Estatu Batuetara esportatutakoaren antzeko kopurua baita. Oro har, hobekuntza nabari da bigarren hiruhilekoarekiko, aldakuntza tasak -%38,9tik -%16,6ra igaro baitira. Erregai mineralen salmentak nabarmen egin du gora, eta hiruhileko horretan salmentak bikoiztu egin dira.

Txinako ekonomiaren susperraldi azkarrari esker, hirugarren hiruhilekoan gora egin dute EAEko salmentek herrialde horretan, nahiz eta hazkunde tasa %2,6 baino ez izan. Herrialde horretara esportatutako guztiaren ia erdia hainbat motatako makinak eta aparatuak dira, eta produktu elektrikoek (%0,5) zein elektronikoek (%6,6) emaitza positiboak lortu zituzten. Halaber, paperaren eta kartoiaren salmenta sendotu da eta herrialdean saldutakoaren %8,0 dira jadanik. Aitzitik, galdaketako manufakturen salmentak %15,4 murriztu ziren urte arteko tasan.

Errusia ere gorabidean dauden herrialdeen zifra negatiboetatik urrundu da eta %36,9ko igoera izan du hirugarren hiruhilekoan. Herrialde horretara egindako esportazioen osaerak aldaketa batzuk izan ditu eta kautxuak (-%35,3) eta ibilgailu automobilerik (-%8,4) garrantzia galdu dute hiruhileko horretan, tresnen (%95,6) eta makineria elektronikoaren (%249,5) alde. Bestalde, Brasilerako esportazioek %11,5 egin zuten gora, aeronautikaren sektoreak dituen zailtasunak gorabehera, eta makinaren eta erregaien salmentan izandako emaitza onari esker.

Hirugarren hiruhilekoko inportazioek esportazioen antzeko profila erakutsi zuten, baina susperraldia apalagoa izan zen. Izan ere, udaberriko -%37,9aren ostean, udako hilabeteetan aldakuntza tasa -%22,0 izan zen. Erregai mineralen erosketak (-%51,2) emaitza osoa oztopatzen du, eta produktu ez-energetikoek bilakaera dinamikoagoa eskaintzen dute, baina oraindik ere zeinu negatiboarekin (-%10,0). Erosketa bolumen handieneko bi taldeetatik, makinek eta aparatuek susperraldi nabarmenagoa izan zuten, bigarren hiruhilekoan -%33,5 izatetik hirugarrenean -%8,0 izatera igaro baitziren; metal arruntek eta haien manufakturek, berriz, eritmo motelagoan egin zuten aurrera (-%25,8tik -%18,8ra).

Aldakuntza tasetan alde nabarmena ikusten da inportazioen jatorri geografikoaren arabera. Hala, bigarren hiruhilekoko beherakadak antzekoak izan ziren herrialde garatuetan eta gorabidean daudenetan (%35 eta %40 artean), baina hirugarren hiruhilekoan ELGEko herrialdeetan egindako erosketak %10,2 baino ez ziren jaitsi, eta gainerakoetan izandako beherakada (-%42,4) aurreko hiruhilekoko baino are handiagoa izan zen.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2018	2019	2019		2020		
			IV	I	II	III	III
GUZTIRA	8,8	-0,8	-5,5	-11,5	-37,9	-22,0	3.680.468
ELGE	4,4	2,1	3,4	-14,4	-37,0	-10,2	2.681.838
Eurogunea	4,7	1,3	1,2	-14,8	-32,5	-7,6	1.736.020
Alemania	4,9	3,2	6,0	-16,7	-31,6	-11,8	568.896
Frantzia	5,6	-7,5	-9,9	-13,9	-31,9	-7,7	354.780
Italia	6,9	-3,7	2,3	-17,5	-33,0	-7,9	193.466
Erresuma Batua	-43,0	-16,1	18,7	-34,7	-7,6	-18,1	130.069
AEB	13,5	86,6	64,0	-22,6	-44,7	-15,8	180.569
ELGETik kanpokoak	18,4	-6,5	-23,0	-5,5	-40,0	-42,4	998.630

Iturria: Eustat.

Egoera zertxobait hobea da Euroguneko herrialdeetan. Izan ere, eremu horrek 2019koa baino %7,6 gutxiago bakarrik balio duten produktuak eman dizkie EAEko enpresei. Jaitsieraren moteltzea, neurri batean, erregai mineralak, kobrea eta produktu kimikoak erostearen ondorio da, burdinaren eta altzairuaren galdaketaren zein makina eta aparatuen inportazioaren ahultasuna konpentsatzen baitute.

Salmenten eta erosketen zifren konbinazioak 1.415 milioi euroko merkataritza saldoa utzi du atzerriarekin eginiko eragiketetan, aurreko bi hiruhilekoetako kopurua gaindituz. Saldo energetikoa negatiboa izan zen eta 486 milioi eurora iritsi zen, kopuru apala pandemiaren aurreko hiruhilekoekin alderatuz gero. Saldo ez-energetikoa, berriz, 1.900 milioi eurora igo zen. Ohi bezala, saldoa EAEn aldekoa da herrialde garatuekin egindako merkataritza transakzioetan (1.569 milioi euro), eta kontrakoa garatzeko bidean dauden herrialdeekin dituen harremanetan (-154 milioi euro). Saldorik onenak Frantziarekin (417 milioi) eta Alemaniarekin (373 milioi) lortu ziren.

Prezioak, soldatak eta kostuak

Aurreko hiruhilekoetan bezala, prezioen bilakaera aztertzen duten adierazleek balio txikiak aurkeztu zituzten. Hala, eta BPGaren deflatoetik hasita, aurreko hiruhilekoko erregistro negatiboa berretsi zuen hirugarrenean ere, $-0,3\%$ an kokatuta, batez ere gaur egungo jarduera ekonomiko baxuko egoera batean kontsumo pribatuaren deflatoreak beheranzko joera izaten duelako, oraindik ere balio negatiboetan jarraituz ($-0,3\%$). Aldi berean, kontsumo publikoaren deflatoreak eta kapital eraketa gordinarenak beheranzko joera ez zuten utzi, hurrenez hurren bost eta bi hamarrenetako jaitsierak jasota.

KPIari dagokionez, adierazle horrek susperraldi txiki bat eskuratu zuen udako azken hilabeteetan, baina duela gutxi bere aldakuntza tasak berriro ere behera egin du, kontsumoak behera egin duelako eta jarduera ekonomikoa murriztu egin delako. Hala, urte arteko tasa $-0,6\%$ jaitsi zen azaroan, hileko horretarakoak dira eskura dauden azken datuak. Prezioen gaineko beheranzko presio berri hori eskari agregatuaren beherakadaren ondorioa da, eta horri erregaien merkatzearen eragina gehitu zitzaion, eskaintza eteteak ekarri zituen kostuek eragindako goranzko presioa sobera konpentsatuz.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2018	2019	2020			Ekarpena
			II	III	Azaroa	
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	-0,5	-0,4	-0,6	-0,6
Azpiko inflazioa (%81,4)	0,9	1,0	1,0	0,4	0,2	0,2
- Elikagai landuak (%13,6)	0,9	0,6	2,3	1,5	1,1	0,1
- Industria ondasunak (%24,8)	-0,1	0,3	0,3	0,1	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%43,0)	1,5	1,6	1,0	0,2	0,5	0,1
Hondar inflazioa (%18,6)	4,6	0,8	-6,8	-3,8	-4,6	-0,8
- Landu gabeko elikagaiak (%7,6)	2,9	1,3	5,5	4,0	4,2	0,2
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-15,0	-9,1	-10,7	-1,0

Iturria: INE.

Erregaien prezioen jaitsiera estu lotuta egon zen petrolioaren prezioen bilakaerarekin. Lehengai horrek balio nahiko baxuak izaten jarraitu zuen, koronabirus kasuen gorakadaren ondorioz eskariak behera egin ondoren. Hala eta guztiz ere, LPEE osatzen duten herrialdeek ekoizpen

murrizketei buruz aurkeztu zituzten akordioen ondorioz, petrolio gordinaren eskaintza txikiagoa izan zen, eta horrek eskaeraren beherakadari lotutako beheranzko presioei aurre egiten jarraitu zuen neurri batean.

Horiek horrela, pandemiaren gorakadak eskaria murriztea ekarri dute berekin, eta, horren ondorioz, inflazioaren bilakaerak beheranzko joera erakusten ari da. Beraz, oso litekeena da KPIak urte arteko balio negatiboak izaten jarraitzea aurtengo urtea amaitzeko falta diren hilekoetan ere. Hala ere, epe ertainera inflazioak balio positiboak berreskuratuko dituela espero da, behin petrolioaren prezioa suspertzen denean, AEBetan pizgarri ekonomiko gehiago izateko aukera dagoelako eta koronabirusaren aurkako txertoa prest egongo delako. Horrek guztiak petrolioaren inbentarioak murriztea ekarriko du.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2019		2020		
			IV	I	II	III	Azaroa
Indize orokorra	1,6	1,0	0,8	0,8	-0,5	-0,4	-0,6
Janariak eta alkohol gabeko edariak	1,5	0,9	1,9	2,6	3,8	2,7	1,9
Edari alkoholodunak eta tabakoa	2,2	0,3	-0,2	0,1	0,2	0,4	-0,1
Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,0	0,9	1,1	1,0	1,0	0,8
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	2,6	-1,4	-4,4	-4,0	-5,1	-2,3	-1,9
Etxeko hornidura	0,3	1,0	1,3	1,1	0,5	0,1	0,0
Medikuntza	0,2	0,4	1,0	0,7	0,5	0,4	0,3
Garraioa	3,4	2,7	2,9	1,0	-6,5	-4,3	-4,9
Komunikazioak	2,4	0,9	0,8	0,1	0,6	-1,2	-4,1
Aisia eta kultura	-0,4	-0,2	0,4	0,3	-0,6	-2,3	-1,3
Irakaskuntza	1,0	1,0	1,4	1,4	1,4	1,3	0,4
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,9	1,9	1,7	1,9	1,3	0,6	0,8
Besteak	0,7	1,6	1,4	1,3	0,8	0,4	0,9

Iturria: INE.

Azpiko inflazioa ere ez zen salbuespena izan balio apalak aurkezteari dagokionez, eta oso aldakuntza tasa apalak izan zituen, eskariaren jaitsieraren ondorioz. Zehazkiago adierazita, bere zenbakiak %0,2ra iritsi ziren, hau da, 2015. urtearen amaieratik inoiz jaso duen zifrarik baxuena. Prezioen egonkortze horretan, azpiko inflazioa osatzen duten talde guztiek parte hartu zuten. Hala, bai landutako elikagaiek bai industriako ondasun ez-energetikoek beherantz egin zuten arren, zerbitzuen taldean izandako beherakada nabarmena azpimarratu behar da, %0,1era iritsi

baitzen, serie historiko osoko erregistrorik txikiena izan baitzen, turismoarekin lotutako partiden portaera hain dinamikoa ez izatearen ondorioz.

Era berean, petrolioaren prezioek salneurri apalak izan zituztela islatuz, energiaren prezioek eragindako beheranzko presioak bere horretan jarraitu zuen. Aitzitik, landu gabeko elikagaien prezioek, urteko lehen seihilekoan aurkeztu zituztenak baino urte arteko aldakuntza tasa txikiagoak erakutsi zituzten arren, pisu handiena izan zuten hondar inflazioaren gorakadan.

Beste behin ere, garraioak eta etxebizitzak bezalako taldeek lagundu zuten gehien inflazioa murrizten. Lehenengoak, erregaien prezioen jaitsierak lagunduta, $-4,9\%$ ko tasa izan zuen. Bigarrenak, berriz, $-1,9\%$ ra apaldu zuen tasa, etxerako hornidura elektrikoaren tarifek balio murriztuetan jarraitu zutelako. Horiei komunikazio taldea gehitu zitzaizen, $-4,1\%$ eko beherakadarekin, telefonia zerbitzuetan izan zen merkatzearen ondorioz. Aitzitik, paradoxikoki, koronabirusak gehien zigortu dituen taldeek, turismoarekin lotura estua dutenez, gainerakoek baino erresistentzia handiagoa izan dute beheranzko joerari aurre egiteko. Talde horietakoak dira aisialdia eta kultura zein ostalaritza. Irakaskuntza ere positibotan dago.

Industria ondasunen prezioei dagokienez, horiek ere balio negatiboak jaso zituzten eta beherakadarekin jarraitu zuten, baina talde bakoitzaren ekarpena desberdina izan zen. Horrela, energiak balio negatiboak markatu zituen, elektrizitatearen prezioaren jaitsieraren eta petrolioaren fintzean gertatu zen merkatzearen ondorioz. Era berean, barneko prezioen katearen lehen faseetan, bitarteko ondasunen prezioen aldakuntza tasa balio negatiboetan kokatu zen. Aitzitik, kontsumoko ondasunek, ekoizpen katearen ondorengo faseetako inflazio presioen adierazleak baitira, gorakada txikiak erakutsi zituzten.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,0	1,5	1,9	2,0	1,8
- Urtean zehar sinatutakoak	1,1	1,7	2,2	2,3	2,0
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	1,0	1,5	2,0	2,1	1,9
- Enpresako hitzarmenak	1,1	1,5	1,6	1,8	1,7

(*) 2020ko urria arte adostutako lan hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azken hilabeteetan, negozioazio kolektiboak aurrerapen nabarmena lortu zuen berriro, egungo krisiak akordioen beharra indartu baitu. Nabarmendu behar dira Gipuzkoako eta Bizkaiko industria siderometalurgikoaren eta itunpeko irakaskuntzaren hitzarmenak sinatu izana. Horiek horrela, sektore pribatuko ia 300.000 langilek dute hitzarmen eguneratua, 215.000 baino gehixeagok dituzte hitzarmenak berritzeko prozesuan, eta 90.000 inguruk soilik jarraitzen dute hitzarmenik gabe, ez baitzen garaiz berritu. Eta negozioazioaren aurrerapen nabarmeneko testuinguru horretan, hitzarmen kolektiboek nolabaiteko egonkortasuna erakutsi zuten hitzartutako soldata igoeretan, indarrean dauden hitzarmenen kasuan %1,8 eta urtean erregistratutako hitzarmenen kasuan %2,0 artean erregistratu baitziren. Beraz, hitzarmena zuten soldatapekoek erosteko ahalmena irabazten jarraitu zuten.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2019		2020		
			III	IV	I	II	III
Lan kostu guztiak langileko	2,5	1,8	1,4	1,5	2,1	-6,3	-0,7
- Soldata kostua guztira	2,4	1,4	0,8	0,2	1,8	-8,4	-0,8
- Bestelako kostuak	2,9	3,1	3,0	5,4	2,9	-0,3	-0,1
Lan kostu guztiak orduko	2,3	3,8	5,5	2,0	6,5	13,6	0,1
- Soldata kostua guztira	2,1	3,4	5,0	0,8	6,2	11,0	-0,1
- Bestelako kostuak	2,7	5,1	7,2	6,0	7,3	21,0	0,7
Adostutako lan orduak	0,3	0,1	0,6	0,0	-0,5	0,1	-0,7
Benetan lan egindako orduak	0,3	-1,8	-3,9	-0,6	-4,1	-17,6	-0,7

Iturria: INE.

Azkenik, soldatapeko eta lan egindako orduko ordainsarien hazkundeak kontrako zeinuko balioak erregistratu zituen, nahiz eta aldeak nabarmen gutxitu ziren hirugarren hiruhilekoan. Hala, lehenengoaren tasa -%0,7ra jaitsi zen, orduko kostu osoa %0,1 igo zen bitartean. Bilakaera heterogeneo horrek enplegua aldi baterako erregulatzeko programen eragina islatu zuen. Programa horietan, langileek beren lan egoerari eutsi zioten, baina ohiko ordainsariaren zati bat baino ez zuten jaso. Hala ere, esan bezala, lan egindako ordu bakoitzeko kostua %0,1era moteldu zen hirugarren hiruhilekoan, 2019ko aldi berarekin alderatuta, eta hazkundera 13,5 puntu murriztu zen aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, lan egindako orduak gutxiago murriztu baitziren alarma egoera amaitu zelako. Izan ere, benetan lan egindako orduen kopurua aurreko aldi baino handiagoa izan zen, nahiz eta hirugarren hiruhileko hori udako hilabeteekin bat etorri, oporraldiekin, hain zuzen ere.

Arlo publikoa

Urrira arteko zerga bilketari buruzko datuek erakutsi zuten beheranzko joera moteltzen joan zela. Hobekuntza horren atzean egon zen, batez ere, diru bilketari dagokionez garrantzi handiena zuten bi neurriek, hala nola geroratzeak lortzeko aukerak zabaltzeak eta zorrak likidatzeko epeak atzeratu ahal izateak, eragin negatiboa izan zutela diru sarreretan pandemiaren lehen hilabeteetan, eta, ondoren, geroratutako edo etendako zenbatekoen zati bat berreskuratu egin zela.

Zehatz-mehatz adierazita, aipatutako aldian, zerga bidezko diru sarrerak 11.218 milioi eurokoak izan ziren, hau da, %12,0ko beherakada izan da iazko datuekin alderatuta, baina aurreko hiletan baino urtetik urterako aldakuntza txikiagoa da. Hori dela eta, zerga itunduen bidezko diru bilketaren itxierari buruzko azken aurreikuspenek lehenago aurreikusitakoak baino jaitsiera txikiagoak islatzen dituzte orain.

Analisia zuzeneko zergapetzearekin hasita, urte arteko tasak %5,9ko jaitsiera erregistratu zuen, bai PFEZaren bai sozietateen gaineko zergaren bilakaerak eraginda. Lehenengoak balio negatiboetan jarraitu zuen, baina beraren elementu nagusia, hots, lanaren ondoriozko atxikipenak, ez zituen aurreko hilabeteetako erregistro positiboak alde batera utzi, nahiz eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak egon eta langabeziaren igoera izan. Era berean, ondare irabaziengatiko atxikipenek balio positiboak aurkeztu zituzten, batez ere inbertsio funtsetako akzioak eta partaidetzak eskualdatzeagatik. Gainontzeko atxikipenetan, aipagarriena da bilakaera irregularra izan dutela guztiek, bai eta ordainketa zatikatuek ere, %36,6 murriztu baitira, lehen hiru hiruhilekoetan ordainketa horiek kendu ondoren.

Beste aldetik, sozietateen gaineko zergak, PFEZak bezala, balio negatiboetan jarraitu zuen, aurkezteko eta ordaintzeko epea atzeratu egin baitzitzairen enpresa txiki eta ertainei. Hala eta guztiz ere, urteko aitortpena aurkezteak itzulketa eskaeren zenbatekoaren murrizketa berrestea ahalbidetu zuen, eta horren eragin positiboa nabaritu da itzulketa horiek egiten hasten direnean.

Zeharkako zergapetzeari dagokionez, esan behar da haren bilakaera zuzeneko zergapetzearena baino negatiboagoa izan zela, eta BEZak izan zituela beherakada nabarmenenak. Hala, zerga bilketaren jaitsiera %18,3 izan zen, pandemia deklaratu zenetik kontsumoak izan zuen narriaduraren ondorioz eta, era berean, zerga horren hiruhilekoko likidazioetan ETEei eta autonomoei emandako geroratzeen ondorioz.

TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-urria)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2019	2020	% Ald. 20/19
PFEZ	4.509.001	4.436.896	-1,6
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	4.406.954	4.458.564	1,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	122.930	119.595	-2,7
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	70.805	64.146	-9,4
- Ondare irabazien atxikipenak	27.828	42.283	51,9
- Loteria eta apustu jakin batzuen g/zerga bereziak	55.627	4.590	-91,7
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	151.372	95.931	-36,6
- Kuota diferentzial garbia	-326.515	-348.214	-6,6
Sozietateen gaineko zerga	1.346.401	1.029.957	-23,5
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	122.930	119.595	-2,7
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	70.805	64.146	-9,4
- Ondare irabazien atxikipenak	27.828	42.283	51,9
- Kuota diferentzial garbia	1.124.839	803.933	-28,5
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	39.795	46.808	17,6
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	94.693	88.051	-7,0
Ondarearen gaineko zerga	165.795	175.396	5,8
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	25.132	27.581	9,7
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	11.474	20.904	82,2
ZUZENEKO ZERGA GUZTIRA	6.192.292	5.825.594	-5,9
BEZaren bertoko kudeaketa	3.532.424	2.887.414	-18,3
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	132.138	108.079	-18,2
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	38.983	28.053	-28,0
Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	23.302	12.615	-45,9
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.546.411	1.370.802	-11,4
Aseguru sarien gaineko zerga	64.031	63.692	-0,5
Joko jardueren gaineko zergak	5.669	5.956	5,1
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	2.969	2.778	-6,4
Iraungitako zergak	-2.739	-538	80,4
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	5.343.188	4.478.851	-16,2
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	88.463	62.394	-29,5
BERTON KUDEATUTAKO TRIBUTU ITUNDUAK	11.623.943	10.366.839	-10,8
BEZaren doikuntza	1.405.136	1.173.247	-16,5
Zerga berezien doikuntza	-284.431	-322.464	-13,4
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	12.744.648	11.217.622	-12,0

Iturria: Foru aldundiak.

Azkenik, zerga berezien diru bilketa %11,4 murriztu zen urtarriletik urrira bitartean. Zerga horiek ere konfinamenduen neurrien eragina jasan zuten. Horiek horrela, beraien osagai nagusiaren jaitsiera, hots, hidrokarburoena, %12,8koa izan zen, jarduera ekonomikoa etetearen eta petrolioaren prezioaren jaitsieraren ondorioz. Era berean, zerga hori osatzen duten gainerako elementuek ere beherakada nabarmenak izan zituzten, eta nabarmentzekoak dira tabako laboreen gaineko zerga eta garagardoa zergapetzen duena, ostalaritza sektorearen bilakaerak oso baldintzatuta baitaude.

Arlo finantzarioa

Jardueraren gorakadak eta politika ekonomikoen etengabeko laguntzak finantza-merkatuetan arriskuarekiko gosea areagotzea eragin zuten udan zehar. Hori hainbat alderditan gauzatu zen: burtsa indizeen gorakadetan, diferentzial subiranoen murrizketetan, petrolioaren eta beste lehengai batzuen prezioen igoeretan eta dolarraren balio galeran beste moneta batzuen aldean, bereziki, euroaren aurrean.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2018	2019	2020						
			Maiat.	Ekai.	Uzt.	Abuz.	Ira.	Urr.	Aza.
Interes tasa ofizialak (%)									
Europako Banku Zentrala	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Erreserba Federala	2,50	1,75-1,50	0,25-0,0	0,25-0,0	0,25-0,0	0,25-0,0	0,25-0,0	0,25-0,0	0,25-0,0
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,75	0,75	0,10	0,10	0,10	0,10	0,10	0,10	0,10
Txinako Banku Popularra	4,35	4,15	3,85	3,85	3,85	3,85	3,85	3,85	3,85
Brasilgo Banku Zentrala	6,50	4,50	3,00	2,25	2,25	2,00	2,00	2,00	2,00
10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna									
Alemania	0,25	-0,19	-0,45	-0,46	-0,53	-0,40	-0,52	-0,62	-0,57
Espainia	1,42	0,47	0,57	0,47	0,34	0,43	0,25	0,14	0,08
Grezia	4,38	1,48	1,51	1,23	1,00	1,10	1,02	0,94	0,64
Erresuma Batua	1,27	0,83	0,18	0,17	0,11	0,32	0,23	0,26	0,31
Italia	2,77	1,43	1,49	1,33	1,08	1,18	0,87	0,72	0,59
AEB	2,69	1,91	0,64	0,65	0,54	0,70	0,68	0,86	0,84

Iturria: Europako Banku Zentrala (EBZ) eta Espainiako Bankua.

Hala ere, baikortasun horrek ez zuen luze iraun. Irailean eta urrian, COVID-19aren bigarren olatuaren hedatze geldiezinak eta AEBetako Kongresuan beste zerga pizgarri baten inguruan akordiorik lortu ez izanak arriskuarekiko gosea murriztu zuten eta ziklo ekonomikoarekin lotura handiena duten aktiboei eragin zieten. Inbertsiogileen gogoak okerrera egin zuen eta burtsa indize nagusien beherakada eta lehengaien prezioen jaitsiera ekarri zituen. Aldi berean, babes aktiboen eskariak gora egin zuen, hala nola dolarrarenak, Japoniako yenenak edo Alemaniako eta AEBetako zor subiranoarenak. Azaroan, AEBetako presidentetzarako hauteskundeetan demokratek lortutako garaipenak eta Europako Banku Zentralak (EBZ) abenduan pizgarri berriak aurreikusi izanak beste aldaketa bat ekarri zuten sentimenduan eta burtsak galdutako eremuaren zati bat berreskuratzen hasi ziren.

Banku zentralen jarduna ia aldaketarik gabe mantendu zen urtearen azken txanpan, eta jarduera ekonomikoari laguntzeko moneta politiken tonu ultrahedakorra mantendu zela nabarmentzekoa da. EBZk, Erreserba Federalak (Fed), Ingalaterrako Bankuak (BoE) eta Japoniako Bankuak erreferentzia tasak bere horretan utzi zituzten, aldatu gabe eta balio minimoetan. BoEk bakarrik erabaki zuen neurri berriak ezartzea. Hori horrela, azaroan 150.000 milioi libera esterlinatan (166.230 milioi euro) handitu zuen aktiboak erosteko programaren zenbatekoa, guztira 875.000 milioi liberatara (970.000 milioi euro) iritsi baitzen. Gainerako banku nagusiek ez zuten beharrezko ikusi laguntzak handitzea, baina guztiek atea irekita utzi zieten pizgarri gehiago onartzeari, egoerak hala eskatzen bazuen. Garatzeko bidean dauden merkatuetako banku zentralen artean ere ez da aldaketarik izan.

Kutsatzeen gorakadak agintariak murrizketak jartzera behartzen dituen ingurune honetan, susperraldiari buruzko aurreikuspenak atzeratu egin dira. Egoera horren aurrean, inbertitzaileak zorrean bilatzen ari dira babesak, batez ere Alemaniakoan eta AEBkoan, banku zentralak esku hartzen duten eta segurtasun handiagoa eskaintzen duen merkatua delako. Zehatzago esanda, irailean, arriskua saihesteko nahiaren gorakadak are gehiago murriztu zituen babeslekutzat hartutako tipoak, Alemaniako bund tasa $-0,52\%$ an eta estatubatuarra $0,68\%$ an kokatu arte. Urria eta azaroa ere oso errentagarritasun txikikoak izan ziren, baina Europako herrialdeen artean (periferikoen eta ez-periferikoen artean) eta Atlantikoaren bi aldeetan artean jokabide desberdina hauteman zen. Hala, jarduerari eta kontsumoari buruzko datuek zor amerikarra $0,86\%$ arte igo zuten, otsailetik izandako tasa handiena baita. Eurogunean, ordea, pandemiaren gorakadak eta bilakaera ekonomikoan izan zuen eragin negatiboak errendimenduak gutxitu zituzten, batez ere herrialde periferikoei zegozkienak. Zehazkiago, Espainiako bonuaren errentagarritasuna $0,05\%$ era jaitsi zen azaroaren 26an, 2019ko abuztutik izandako txikiena, eta italiarrarena, berriz, $0,56\%$ ra. Alemaniako bund-ak, aldiz, pixka bat gora egin zuen azaroan, $-0,57\%$ arte, nahiz eta errentagarritasuna negatiboa izan.

Euroguneko periferiako arrisku sariak, beste aldetik, estutu egin ziren, eta, horri esker, Espainiako, Italiako eta Portugalgo interes tasa subiranoak epidemia aurreko mailen azpitik kokatu ziren. EBZren babes ezinbestekoa izan da horretarako. Europako politikak zerga mailan (urrian Europar Batasuneko estatu kideak Next Generation EUren funtsak jasotzeko berreskuratze planak taxutzen hasi ziren) eta moneta arloan (aurten, EBZk 920.000 milioi euro inguruko zorra duten aktibo publiko eta pribatuak erosi ditu bere PEPP eta APP erosketa-programen bidez, hau da, Euroguneko 2019ko BPG nominalaren %8,0) eman zuten erantzun handinahikoak inbertitzaileen ezkortasuna mugatu zuten. Horri guztiari abenduan moneta eta zerga esparruetan laguntza neurri gehiago hartuko direlako igurikimenak gehitzen bazaizkio, ulergarria da bilakaera hori.

Dibisa merkatuari dagokionez, irailean, Europako osasun krisiak okerrera egin zuenez eta aurreikuspen ekonomikoek okerrera egin zuten, inbertsiogileek babeslekutzat hartutako dibisen alde egin zuten, eta horrek dolarra eta yena balioetsi zituen dibisa nagusien aurrean, euroa barne. Geroago, Next Generation EU (NGEU) berreskuratze europarraren programaren inguruko akordioak lagundu zuen COVID - 19ak euroaren eremuaren kohesioari kalte egin diezaiokkeenaren pertzepzioa murrizten, hura osatzen duten herrialdeei modu desberdinean eta iraunkorrean eragin zielako. Horrek euroa gorantz bultzatu zuen, eta, azkenean, euroaren balioespina berretsi zuen Pfizerrek SARS-aren aurkako txertoa egiteari buruz egindako iragarpenari esker.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2018	2019	2020						
			Maiat.	Ekai.	Uzt.	Abuz.	Ira.	Urr.	Aza.
Truke tasak									
Dolarra/euro	1,181	1,120	1,090	1,125	1,146	1,183	1,179	1,178	1,184
Yena/euro	130,4	122,1	116,9	121,1	122,4	125,4	124,5	123,9	123,6
Libera esterlina/euro	0,885	0,877	0,887	0,899	0,905	0,901	0,909	0,907	0,896
Yena/dolarra	110,4	109,1	107,2	107,6	106,8	106,0	105,6	105,2	104,4
€ efektibo nomin. (%)	100,0	98,2	98,4	99,8	100,5	101,6	101,6	101,4	100,7
Burtsa indizeak (*)									
IBEX35	-15,0	11,8	-25,7	-24,3	-28,0	-27,0	-29,7	-32,4	-15,4
Eurostoxx-50	-14,3	24,8	-18,6	-13,6	-15,2	-12,6	-14,7	-21,0	-6,7
Dow Jones	-5,6	22,3	-11,1	-9,6	-7,4	-0,4	-2,7	-7,1	3,9
Nikkei 225	-12,1	18,2	-7,5	-5,8	-8,2	-2,2	-2,0	-2,9	11,7
Standard & Poors	-6,2	28,9	-5,8	-4,0	1,2	8,3	4,1	1,2	12,1

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilekoaren azken egunera arte.
Iturria: Europako Banku Zentrala (EBZ) eta Espainiako Bankua.

Joera hori areagotuta geratu da abenduko lehen egunetan, euroa 1,21 dolarretan kotizatu baitzuen, 2018ko apirilko mailan. Urteko minimoetatik, martxoaren amaieratik jaso baitziren, euroak %13,1 egin du gora dolarraren aldean. Dolarraren beherakada hori, neurri handi batean, zirkulazioko billete berdeen eskaintzan izandako murrizketa nabarmenengatik gertatu da, banku zentral nagusiek dolarretan egindako likidezia eragiketen maiztasun murrizketen ondorioz, bai eta euroak bizi izan duen gorakada gehigarriagatik ere, Londresek eta Bruselak Brexit gogorra saihesteko akordio batera iristeko probabilitate zalantzarrien aurrean. Paradoxikoki, Europako dibisaren sendotasuna ez dator bat adierazle makroekonomikoen bilakaerarekin, zeren eta euroguneko krisi ekonomikoa AEBetako baino sakonagoa izaten ari baita, eta susperraldia are ahulagoa izango dela aurreikusten da.

Hala eta guztiz ere, baliteke euroaren sendotasun hori hain desiratua ez izatea krisialdiko une hauetan, zeren eta euroaren balio irabaziak alboko kaltea baitakar: inflazio txikia. Hain zuzen ere, azaroan euroguneko KPIa $-\%0,3$ koa izan zen, eta lau hilabetez jarraian jaitsierak jaso zituen. Bilakaera horrek kontsumoa are gehiago moteldu dezake erosketak geroratuta (beherapen handiagoen zain), eta horrek enpresen marjinak kaltetuko lituzke eta inbertsio eta jarduera gutxiago erakarriko lituzke, langabezia handiagoa eraginez.

Arriskuaren kontrako eta ezkortasun handiagoko testuinguru batean, mundu osoko burtsek behera egin zuten oro har irailean, eta ez zuten lortu udako hilabeteetan hasitako susperraldia finkatzea. Urrian, aurreko hilabetezko galerak handiagotu ziren, batez ere Europako burtsetan, non pandemiaren bilakaerak eta murrizketa berriek indizeak oso behera eramane baitzuten. Erorikoak AEBetako burtsetara ere hedatu ziren, baina, beste behin ere, Europako indizeen eta estatubatuarren artean desberdintasun handia nabari da. Horiek horrela, Europako burtsen beherakadaren aurrean (Ibex-35 indizeak %32,4 egin zuen behera, eta Eurostoxx-50 indizeak, berriz, $-\%21,0$, besteak beste), Estatu Batuetan enpresen mozkinak aurtengo hirugarren hiruhilekoan izan zuten hobekuntza erlatiboak indizeen beherakada motelagoa ekarri zuen. Hain zuzen ere, S&P indizeak arlo positiboan mantentzea lortu zuen, nahiz eta presidentetzarako hauteskundeak laster izango ziren, pandemia hedatzen ari zen eta pizgarrien programa oraindik onartu gabe dagoen.

Azaroan, burtsak berriro suspertu egin ziren. Brexit-aren negoziazioei buruzko albisteek eta txertoen inguruko berrikuntzek mundu osoko burtsa indizeak gorantz bultzatu zituzten. Horien guztien artean, Ibex-35aren bilakaera azpimarratu behar da, kontinente zaharreko indizerik handienen artean nabarmendu baitzen bere irabaziengatik, %25,0, 1992an jaio zenetik izan duen igoerarik handiena baita. Hala ere, Madrileko burtsak argi eta garbi jarraitu zuen zenbaki gorrietan. Urtea hasi zenetik, %15,4 galdu du, eta zaila dirudi abenduan urtarrilaren 1etik galdutako guztia berreskuratzea. Europako gainerako burtsetan ere irabaziak nagusitu ziren azaroan, baina horietako batzuek, Ibex-35ek bezala, ez zuten lortu pilotutako beherakadak

konpentsatzea. Orintsuko euforia inbertitzailea Espainiatik eta Europatik haratago joan zen. Atlantikoaren beste aldean, are intentsitate handiagoa izan zuen. AEBetan, burtsek hilabete bikaina bizi zuten (batez ere Nasdaq teknologikoak, %26,0 ezohiko bat eskuratu baitzuen), eta balio maximoak markatu zituzten behin eta berriro, kutsatzen kopuruei erreparatu gabe.



Txerto eraginkor bat izateko igurikimenak ezin izan zuen 12 hilabeteko euriborraren bilakaera suspertu eta laugarren hilabetea pilatu zuen minimo historiko jarraituekin. Euriborra nahiko portaera irregularra izaten ari da urtearen joanean, eta maitatza eta ekainean gorakada txikiak izan bazituen ere, ondorengo hilabeteetan nabarmen konpentsatuta geratu ziren. Zehazkiago adierazita, azaroan -%0,481era arte jaitsi zen. Antza denez, euriborraren minimo teorikotik oso gertu dago, une honetan -%0,5ean baitago, eta hori da bankuek EBZri funtsak gordailutzeagatik ordaintzen dioten interes-tasa, baina adituek ez dute baztertzen unean-unean maila baxuagoan kokatzea.

Interes tasa txikiko eszenategi hori gorabehera, tasa finkoko hipotekak %50,0tik gorakoak izan ziren berriro, eta, bigarren hiruhilekoz jarraian, tasa aldakorreko hipotekak baino gehiago izan ziren. Gorakada hori ez dago hipotekadun berrien arriskuarekiko ezinikusiaren mende soilik; izan ere, banketxeak tasa finkoak sustatzen ari dira (%1,63 urrian). Euriborra hainbat urtez negatiboan mantenduko dela kalkulatzen da, eta horrek esan nahi du interes-tasa aldakorreko hipoteka batek ez duela finantza marjinarik ekarriko. Beraz, aukera horren aurrean, erakundeek nahiago dute tasa finkoa ziurtatu.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Zenbatekoa (ezkerrean, milioiak) hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Hipoteken merkatuari dagokionez, etxebizitzak erosteko hipoteken sinadurak %38,4 egin zuen gora uztailean EAEn, eta elkarren segidako igoeren bigarren hilabetea izan zuen. Hala eta guztiz ere, abuztuko eta iraileko datuek ez zuten joera hori finkatu. Are gehiago, abuztuan hipoteken formalizazioak %6,3 murriztu ziren eta irailean ez ziren %1,0 baino gehiago izan. Horrek esan nahi du ekaineko eta uztaileko gorakada handia apirilean eta maiatzean etenda geratu ziren hipoteken formalizazioaren ondorioz gertatu zela, eta EAEko hipoteka merkatuak ez duela krisialditik aparteko bilakaerarik izan. Hain zuzen ere, hiruhileko balantzeak %12,8ko tasa positiboa eman zuen arren, krisia hasi zenetik, mailegu horien sinadura %10,0 murriztu da martxotik iraileira bitartean, iazko epe berean formalizatutakoekin alderatuta, eta emandako zenbatekoa %11,5 murriztu da.

Aurreikuspenak

Munduko ekonomiaren bilakaerari buruzko aurreikuspenak hobetu egin dira azken asteotan, COVID-19aren aurkako txertoetan egindako aurrerapenei esker. Bere abenduko txostenean Consensus Forecastsek adierazi duenez, munduko ekonomia -%4,2 murriztuko da 2020an eta %4,8ko hazkundera izango du 2021ean. 2020an izango duen beherakada latzaren ondoren, munduko ekonomiak indarra hartuko du 2021ean zehar, eta urte horren amaieran munduko Barne Produktu Gordinaren (BPG) maila pandemia aurreko mailara iristea aurreikusten da.

Ekonomiaren susperraldia ezberdina izango da herrialdeen eta sektoreen artean. Krisi honek gehien kaltetuko dituen ekonomiak nazioarteko merkataritzaren, turismoaren eta kanpo finantzaketaren mendekotasun handiena dutenak izango dira. Bestalde, diagnostiko, bilaketa eta isolamendu sistema eraginkorrak dituzten eta txertaketa azkar ezarriko den herrialdeek krisitik hobeto aterako dira, nahiz eta haien hazkunde tasa munduko eskariaren ahultasun orokorrak oztopatu dezakeen. Halaber, gobernuen eta banku zentralen politika publikoek sektore askoren jardura globala berreskuratzea lortu dute. Hala eta guztiz ere, urruntze sozialak eragindako hirugarren sektoreko adarrek uzurtuta jarraituko dute birusaren hedapena kontrolatzeko murrizketak beharrezkoak diren bitartean.

Aurreikuspen ekonomikoek ziurgabetasun handia izaten jarraitzen dute, bai goranzko bai beheranzko arriskuekin, eta horiek guztiak, batez ere, pandemiari aurre egiteko garatutako txertoen banaketarekin eta beraien eraginkortasunarekin lotuta daude. Txertaketa eraginkorra, azkarra eta bidezkoa izanez gero, egungo eszenategi makroekonomikoen goranzko zuzenketa egin beharko lirakeke. Alde negatiboan, birusak herrialde askotan izan dituen agerraldiek tentsio ekonomikoak ekarriko dituzte, jardura sozial eta ekonomikoaren etengabeko murrizketen ondorioz.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021
Munduko ekonomia	2,5	-4,2	4,8	2,7	2,1	2,4
AEB	2,2	-3,6	4,0	1,8	1,2	2,0
Kanada	1,9	-5,7	4,7	1,9	0,7	1,7
Japonia	0,7	-5,3	2,6	0,5	0,0	0,0
Eurogunea	1,3	-7,3	4,7	1,2	0,3	0,9
Europar Batasuna	1,5	-7,1	4,5	1,3	0,5	1,1
Alemania	0,6	-5,4	3,9	1,4	0,5	1,4
Espainia	2,0	-11,7	6,1	0,7	-0,3	0,6
Frantzia	1,5	-9,3	5,9	1,1	0,5	0,8
Herbehereak	1,7	-4,4	2,8	2,6	1,2	1,3
Italia	0,3	-9,0	4,9	0,6	-0,2	0,4
Erresuma Batua	1,3	-11,1	5,3	1,8	0,9	1,6
Asia eta Ozeano Barea	4,0	-1,5	6,2	2,2	2,0	1,6
Ekialdeko Europa	2,5	-4,0	3,8	5,6	5,2	5,0
Amerika Latinoa (Venezuela ezik)	0,6	-7,5	4,0	10,1	7,7	9,1

Iturria: Consensus Forecasts (2020ko abendua).

Munduko ekonomia nagusien bilakaeran heterogeneotasun handia hauteman da, bai osasunaren kudeaketan bai ekonomiarenean. Gorabidean dauden ekonomietan, Txinaren bilakaera nabarmentzen da. Birusa kontrolatzeko ezarri zituen neurrirei eta aplikatutako politika publikoei esker, COVID-19a lehertu aurretik zeuden jarduera mailen antzekoak lortu ditu 2020ko azken hilabeteetan. 2021erako, munduko hazkundearen heren bat herrialde horretan lortuko dela espero da. Garatzeko bidean dauden eta azaleratzen ari diren gainerako herrialdeetan, aurrera egiteko aukerak txikiagoak dira. Portaera dinamikoago baten aurka, badira faktore batzuk, hala nola beraien osasun sistemen prekaritatea eta turismoarekiko zein kanpo finantzaketarekiko mendekotasuna.

Asiako eta Ozeano Bareko ekonomia aurreratuek modu eraginkorragoan kudeatu dute osasunaren krisia eta horrek 2020an ekonomia gutxiago hondatzea ekarri du berarekin. Osasun kudeaketa hobeak eta gaixotasun infekziosoen aurrean prebentzio neurriekin ohituagoa dagoen kultura batek pandemiaren eragin ekonomiko txikiagoa ekarri dute. Txanponaren beste aldean, Europar Batasuna, nazioko eta eskualdeko profil ezberdinekin, atzeraldi ekonomikoak gehien astintzen duen eskualdea da.

Euroguneko ekonomiari dagokionez, Consensus Forecastsek $-7,3\%$ ko jaitsiera aurreikusi du 2020an, eta $4,7\%$ inguru haziko da 2021ean. Batez besteko aldakuntzak beraien artean alde handiak dituzten tasa nazionaletatik sortzen dira. Aurreikuspenen arabera, 2022. urtearen amaieran pandemiaren aurreko BPGaren maila berreskuratuko da. COVID-19aren agerraldi etengabeek eta euste neurriak jarduera ekonomikoa hondatzen jarraituko dute, harik eta txerto bat modu zabalean aplikatzen den arte. Halaber, murrizketa zorrotzen eta laxoagoen txandakatze egoera horrek sei edo bederatzi hilabete gehiago iraun dezake.

Kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren agregatuak izango dira kaltetuenak, ziurgabetasun handiko eta eragile ekonomiko pribatuen konfiantza txikiko testuinguru batean. Inbertsioaren susperraldia motela eta pandemiaren aurreko mailetatik urrun dagoela aurreikusten da. Kontsumoari ere kostatuko zaio osorik suspertzea, langabeziaren, soldata hazkunde apalaren eta aurrezki tasa handiaren baldintzatzaileak kontuan hartuta. Txerto horren ezarpen eraginkorrari lotutako ziurgabetasunari eta arriskuei Brexitean akordiorik ez lortzeko aukera gehitu behar zaie. Gertakari horrek merkataritza harremanak eta konfiantza okertuko lituzke. Alde positiboari dagokionez, txertoen aurrerapen onak, miaketa, diagnostiko eta isolamendu estrategia hobeei eta Europa suspertzeko plana azkar eta eraginkortasunez martxan jartzeak jarduera ekonomikoa eta herritarren itxaropenak bultzatuko lituzkete.

Eurogunearen barruan, Espainia da 2020an BPGaren beherakada handiena izango duen herrialdea. Consensus Forecastsen arabera, Espainiako ekonomiaren hazkunde aurreikuspenak 2020rako $-11,7\%$ izango dira eta 2021erako $6,1\%$. CEPREDEk, berriz, $-10,8\%$ ko beherakada aurreikusi du 2020rako, eta $8,7\%$ ko susperraldia 2021erako. Dagoen ziurgabetasunak analista ekonomikoek egindako estimazioetan alde handiak egotea eragiten du. Abiapuntuko hipotesia berbera da taula makroekonomiko gehienetan. Espainiako Gobernuak birusa kontrolatzeko aukeratu duen estrategian, etengabeko murrizketa lokalak aplikatuko dira, gaixotasunaren hedapena murrizteko birusen berragerraldien aurrean. Eta egoera horri eutsiko zaio tratamendu eraginkorrik edo txertorik egon arte. 2020an, barne eskaera pribatuaren osagai guztiek narriadura handia jasango dute. Ziurgabetasun handiak nabarmen murriztuko du kontsumitzaileen eta enpresariaren konfiantza. 2021erako, aurreikuspenen arabera, hazkundeak tasa positiboaren bidea hartuko du, baina BPGaren maila 2019aren amaieran zegoenaren azpitik egongo da, eta 2022aren amaierara arte ez dira lortuko ordutako berreskuratzea.

Lan merkatuaren berezko aldagaiei dagokienez, Cepadek uste du Espainiako ekonomiaren enpleguak $7,5\%$ ko beherakada izango duela 2020an eta $4,8\%$ ko hazkundera, berriz, 2021ean. Langabezia tasa altua izango da aldi osoan. Langabezia tasaren bilakaerari buruzko aurreikuspenen arabera, goranzko joera etengabea izango da eta $16,0\%$ iritsi da 2021eko batez bestekoan.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2020ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020		2021				2021
	IV	2020	I	II	III	IV	
BPG	-8,6	-10,8	-0,8	22,2	8,2	7,3	8,7
Kontsumo pribatua	-9,0	-12,5	2,1	28,2	8,0	4,8	9,9
Kontsumo publikoa	3,5	3,5	2,6	2,4	1,2	0,3	1,6
Kap. finkoaren eraketa gordina	-7,5	-12,6	1,3	31,1	13,4	8,0	12,4
- Inbertsioa ekipamenduan	-8,9	-15,4	2,9	47,0	14,0	9,6	16,1
- Inbertsioa landutako aktibotan	9,5	8,1	8,5	6,5	2,3	2,0	4,7
- Inbertsioa eraikuntzan	-8,7	-14,7	0,7	32,1	15,2	8,6	13,1
Barne eskaria	-6,1	-9,4	2,1	22,2	7,8	4,4	8,6
Esportazioak	-17,2	-19,5	-6,6	46,8	17,0	19,8	16,6
Inportazioak	-10,3	-16,2	1,9	47,6	16,4	10,7	17,0

Iturria: Cemprede.

EAEko ekonomiaren hirugarren hiruhilekoko hazkundeari buruzko datua argitaratuta eta koiunturako beste adierazle batzuk eguneratuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2020. eta 2021. urteetarako Taula makroekonomikoa berrikusi du. Zenbatespen berrien arabera, EAEko BPG %9,4 jaitsiko da 2020an, eta tasa hori aurreko hiruhilekoan argitaratu zena baino zazpi hamarren altuagoa da. Narriadura sakon horren ostean, 2021erako %8,6ko hazkundera aurreikusten da. Testuinguru ekonomikoan nagusi den ziurgabetasunak zabaltasun handia ekarri du beste erakunde batzuek egindako aurreikuspenen artean. Hala bada, 2020. urterako, aurreikusitako balioen aldakuntza AFiren -%7,5aren eta Hispalinken -%10,6aren artekoa da. 2021erako aurreikuspenak BBVAren %5,8aren eta Eusko Jaurlaritzaren zein Cemprederen %8,6aren artean kokatzen dira.

2020. urtea hiruhileko argi-ilun batekin amaituko da. COVID-19aren bigarren olatua kontrolatzeko ezarri diren neurri murriztaile berriek eragin handia izango dute turismoan, jatetxeetan eta kultur jardueretan. Hori horrela izanda, hirugarren hiruhilekoan hasitako susperraldia eten egingo da aurtengo azken hilabeteetan. Hala eta guztiz ere, 2020an, batez beste, barne eskariaren agregatua izango da osasun krisiaren ondorio ekonomikoak gogorren jasango dituen. Zehazkiago, barne eskaria %8,5 jaitea aurreikusten da. 2021ean jarduera indartsu berreskuratzea espero da, baina ez da berdina izango sektore ekonomiko guztietan. Urruntze sozialak gehien erasandako jarduera adarrak ez dira erabat berreskuratuko, harik eta txerto eraginkor bat masiboki banatzen den arte.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2020ko abendua)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020		2021				2021
	IV	2020	I	II	III	IV	
BPG	-7,3	-9,4	0,0	21,3	7,7	7,4	8,6
Azken kontsumoa	-5,9	-7,5	0,4	17,4	6,0	6,2	7,2
Kontsumo pribatua	-8,3	-10,5	0,0	22,3	7,2	7,2	8,7
Kontsumo publikoa	3,2	3,5	1,5	2,2	1,4	1,7	1,7
Kapital eraketa gordina	-8,8	-11,7	-1,3	24,8	8,7	8,5	9,4
Barne eskariaren ekarpena	-6,8	-8,9	0,0	20,3	6,7	6,9	7,9
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,5	-0,5	0,0	1,0	1,0	0,5	0,8
Lehen arloa	-9,6	-5,0	11,6	13,6	8,6	11,2	11,3
Industria eta energia	-9,1	-12,2	-0,1	28,3	7,8	7,0	9,7
Eraikuntza	-8,9	-9,7	-0,3	18,5	7,7	7,3	7,9
Zerbitzuak	-6,4	-8,3	-0,1	19,5	7,6	7,5	8,2
Balio erantsi gordina	-7,2	-9,3	0,0	21,3	7,7	7,4	8,6
ekoizkinekin gainera zergak	-8,2	-10,1	-0,3	20,0	7,8	7,4	8,4
BPGaren deflatorea	-0,2	-0,1	0,3	0,6	0,9	1,0	0,7
Lanaldi osoko lanpostuak	-6,3	-8,1	-1,3	17,4	6,1	6,2	7,0
Landunak (BJA)	-3,3	-2,7	-1,8	2,9	2,9	2,8	1,7
Langabezia tasa	10,4	10,3	9,8	9,6	9,8	10,1	9,8


Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskariaren agregatu guztiek geldialdi ekonomikoaren eragina jasango dute, salbuespen bakarra administrazio publikoen kontsumoa eta inbertsioa izango direlarik, horiek eragile egonkortzaile gisa esku hartzen baitute. Familien gastua kontsumoan %10,5 jaitsiko da 2020an, baina 2021ean gora egingo du %8,7ra iritsi arte. Hala eta guztiz ere, epe laburreko susperraldia osatugabea izango da, zenbait jardueratan (bidaiak, ostalaritza, aisialdia...) egindako gastuak denbora beharko duelako normaltasuna berreskuratzeko. Halaber, ziurgabetasunak kontsumitzaileen konfiantza murriztuko du, eta aurrezten jarraituko dute, zuhurtiaz jokatuta. Azken kontsumoko gastuaren beste zatia, hau da, osagai publikoa, 2020an eta 2021ean, hurrenez hurren, %3,5eko eta %1,7ko tasetan haziko da aurreikusitako denboran. Administrazio publikoen gastuaren helburua izango da, neurri batean, EAEko ekonomiaren osagai pribatuari laguntzea eta jarduera dinamizatzen saiatzea.


Beste aldetik, 2020an kapitalaren eraketa gordina %11,7 jaitsiko dela aurreikusten da. Aurreikuspen horien arabera, 2021ean gora egingo du. Hala eta guztiz ere, ziurgabetasuna izango da enpresaren esparruko etorkizuneko bilakaera markatuko duen faktore nagusia. Enpresa jarduerari buruzko egoera zalantzarik inbertsio planak geroratzea edo bertan behera uztea ekar dezake. Gainera, krisia luzatzeak kaudimen arazoak ekar diezazkieke enpresa bideragarri batzuei. Susperraldian zeregin erabakigarria izango dute jarduera sustatzeko diseinatutako politika ekonomikoek.

2020ko eta 2021eko aurreikuspenak (I) Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2020



Aurreikuspen panela 2021




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2020ko abendua), CEPREDE (2020ko azaroa), BBVA (2020ko urria), Laboral Kutxa (2020ko abendua), Afi (2020ko maiatza) eta Hispalink (uztaila 2020-BEGren aldakuntza).

2020an munduko ekoizpen jarduerak bizi duen narriadurak EAEko esportazioen eta inportazioen beherakada handia ekarriko du berarekin. Egoera hori 0,5 puntuko kanpo saldo negatiboan kuantifikatu da 2020an, eta barne saldoaren ekarpen negatibo handiari gehitu zaio. 2021ean, kanpo sektoreak eragin positiboa izango du, merkataritza bazkide nagusien ekonomien hedapenari esker. Zehazkiago adierazita, 2021 urteko batez bestekoan, kanpoko saldoaren ekarpen positiboa 0,8 puntutan kalkulatu da. Sektore ekonomikoei dagokienez, jarduera adar pribatu guztiek narriadura handia izango dute 2020an. Horietan guztietan susperraldi handiko joera izango da 2021ean, baina pandemia lehertu aurreko mailara iritsi gabe. Zerbitzu pribatuen adarrari eragingo diote gehien birusaren berragerraldiei eusteko hartutako jarduera murrizteko neurriek.


2020ko eta 2021eko aurreikuspenak (II)

Urte arteko aldakuntza tasak

Barne produktu gordina



Enplegua



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Lan merkatuaren, enpleguaren eta langabezia tasaren aldagaiak ere berrikusi dira taula makroekonomiko berrian. Hala, aurten enpleguaren beherakada %8,1 izango dela kalkulatzen da, hau da, lanaldi osoko 79.300 lanpostu inguru galduko dira. 2021eko hazkunde handiak (%7,0) 60.200 lanpostu inguru sortzea ekarriko du. Kopuru horiek aurreikusitako BPGa lortzeko behar den enpleguari buruzkoak dira. Pertsona landunei dagokienez, BJan jasotzen den bezala, 2020an enpleguaren jaitsierak 25.700 pertsona ingururi eragingo die; 2021ean, berriz, goranzko joerak 15.700 pertsona landun gehitzea ekarriko du. Lanpostuen galera mugatzeko eta enpresa sektoreari laguntzeko hartutako neurriek arindu egin dute krisiak lan merkatuan izan duen eragina. Egungo egoeran, langabezia tasak pixka bat gora egingo duela aurreikusten da, %10,3 izango baita aurtengo batez bestekoa. 2021ean, aldagai horrek, urteko batez bestekoa, %9,8 inguruko egonkortasun profila markatuko du.

Jarduera ekonomiko anemikoaren ondorioz, prezioak jaitsi egiten ari dira. BPGaren deflatorearen estimazioa tasa apur bat negatiboan dago (-%0,1). Prezioen mailak bide negatiboari eutsi dio pandemiaren eragina handiagoa izan zen hilabeteetatik, petrolio gordinaren prezioaren beherakadaren eta beste talde batzuen prezioen moderazioaren ondorioz, batez ere zerbitzuen sektorekoak. Ekonomia dinamizatu ahala, deflatoreak goranzko joera neurritsua izango du, 2021ean batez beste %0,7an kokatu arte.